



LITERATUR LEHIAKETA 2013
ORIO

ESKOLAUMEEN

LITERATUR LEHIAKETA 2013

ORIO



Orioko Udala

Azala: Ane Orzaiz
Legezko gordailua: SS 477/88
Inprimaketa: Bizker grafikak (Lasarte-Oria)

AURKIBIDEA

Hitzaurrea. <i>Jabier Zabaleta</i>	5
Txipiroi erraldoia eta olagarroa. <i>Jokin Iruretagoiena</i>	7
Orioko balea. <i>Unai Lertxundi</i>	7
Infinitu. <i>June Iradi</i>	9
Erlojua. <i>Iker Zabaleta</i>	9
Animaliak bi altxorren bila. <i>Blas Esnal</i>	11
Kolore gabeko herria. <i>Aaron Salsamendi</i>	13
Birziklatu! <i>Leire Olariaga</i>	13
Kolorez kolore. <i>Candy Ostolaza</i>	15
Marrazo ausarta. <i>Sergio Hernandez</i>	17
Etxe ibiltaria. <i>Xiao Iturbe</i>	17
Tximua. <i>Larraitz Lopetegi</i>	19
Amonatxo. <i>Ana Manterola</i>	19
Ametsetako txakurra. <i>Miren Genova</i>	21
Amatxo basatia. <i>Jon Marquez</i>	23
Nire aitona. <i>Alexander Azkue</i>	25
Koloreak. <i>Intza Erkizia</i>	27
Baloi berezia. <i>Mikel Eizagirre</i>	27
Erle lagunak. <i>Lander Santos</i>	31
Ilusio bila. <i>Elene Elizondo</i>	35
Pozaren inbentarioa. <i>Beñat Sarasua</i>	37
Pottolo zuhaitza. <i>Irati Gonzalez</i>	39
Arazoak denbora laburrean... <i>Irati Egibar</i>	43
Bizitza gogorra da. <i>Ania Amilibia</i>	49
Lagun maitea. <i>Elene Arruti</i>	51
Bizitzaren gorabeherak. <i>Elene Arruti</i>	51
I Think He's Gay. <i>Borja Esnal</i>	55
Uda noiz? <i>Rut Atxega</i>	59
Berandu da. <i>Ane Colado</i>	61
Hondar ekaitza. <i>Ainhua Grijalba</i>	63
Nottinghameko asasinatzea. <i>Maria Manterola</i>	69
Zer egin? <i>Olatz Dorronsoro</i>	75
Bidaia galdua. <i>Mikel Amilibia</i>	75
Zer gertatuko ote zen? <i>Ione Zinkunegi</i>	79
Aaron Assael. <i>Eneko Elizondo</i>	91
Roter kasua. <i>Jon Manterola</i>	95

Hitzaurrea

Txikitako osasun txarrari zor diot nik, seguru asko, irakurzaletasuna. Bronkiotako gaitzak ez zidan kirolean edo jolasean besteen mailan aritzeko aukerarik ematen eta, gainera, maiz edukitzen ninduen ohera kateatuta, arnasa txistuka hartuz. Ez da harritzekoa ohean eta geldi-geldi horrenbeste denbora pasa behar zuen mutiko hark *txisteen* orri-pasan bilatzea atsegina. Horrela deskubritu nituen Red Rider, Gene Autry, ‘Llanero Solitario’ eta Hoppalong Cassidy *bakeroak*; Anacleto, Mortadelo eta Filemon, Carpanta, Gilito edota Sacarino; eta, baita ere, Batman, Superman, Spiderman, Thor, Dare Devil eta beste superheroi asko.

Nire txikitako oroitzapen asko ez daude lotuta gure arraunlarien balentria ugariei edota lagunekin futbolekin egindako azainei, baizik-eta neguko arratsaldeetan, ohean sartuta, *txiste* haien bidez bizi izandako abentura are miresgarriagoi. Esango nuke naizenaren parte garrantzitsu bat irakurketa goiztiar haiei zor diedala. Mundu bat zabaldu zidaten, egunerokoaz bestelakoa, eta, batez ere, mundu gehiago esploratzen segitzeko gogoia piztu zuten nigan.

Gaur egungo haurrek ez dute derrigor —nik garai hartan bezala— gaztelaniaren galbahetik pasa behar, mundu horiek esploratzeko. Euskaraz aukera asko dauzkate eta, gero eta gehiago, beste hizkuntza batzuk ere baliatzen dituzte normaltasun osoz. Gaurko egunean letren mundua izugarri zabaldu, ugaritu eta edertu da, eta aukeraz betetako paraje zoragarriak ditu, esploratzeko zain.

Horietan barrena galtzeko gonbita egin nahi dizuet.

Jabier Zabaleta, irakurlea

Txipiroi erraldoia eta olagarroa

Behin bazen txipiroi erraldoi bat, kostaldeko ei eraso egiten ziena.

Egun batean olagarro bat agertu zen. Herritarrak barkuetan sartu eta olagarroarengana joan ziren, eta galdetu zioten:

—Zergatik zaude hemen?

—Ur beroetara etortzen naiz —erantzun zien olagarroak.

Orduan, txipiroia agertu zen eta olagarroarekin borrokan hasi zen. Ekaitza ere hasi zuen. Olagarroak, txipiroiaren tinta beltza erabiliz, aurpegia dena belztu zion txipiroiari.

Txipiroiak alde egin zuen eta ez zen gehiago azaldu.

Jokin Iruretagoiena

Orioko balea


Bazen behin Karlos izeneko oriotar bat. Oinez ibiltzera joatea gustuko zuen Karlosek.

Egun batean Orioko hondartzara joan zen eta han balea bat ikusi zuen, saltaka. Karlos, orduan, uretara gerturatu zen korrika, baina balea ur ertzeraino etorri eta Karlos irentsi egin zuen.

Egun hartan bertan Orioko arrantzaleak hondartza paretik pasa ziren beren lana bukatu zelakoan. Baina, bat-batean, balea saltaka ikusi eta arrapatzera joan ziren. Arpoiez hil eta sabela ireki zioten Orioko portuan. Orduan, Karlos sabeletik atera zuten, bizirik. Herri guztia harrituta geratu zen balearen harrapaketaekin.

Herritar guztiek herri-bazkaria egin zuten, balearen harrapaketa ospatzeko.

Unai Lertxundi



Ane Amas

Infinitu

Kolore bat hegan hasten da,
pozik dagoenean.
Zenbat izar daude unibertsoan?
Infinitu!

Liburuak jolasean hasten direnean,
jendea dantzari hasten da.
Zenbat mundu ote daude unibertsoan?
Infinitu!

Margoak margotzen hasten direnean,
lapitzak idazten hasiko dira.
Zenbat mitxoleta daude Euskal Herrian?
Infinitu!

June Iradi


Erlojua

Erlojutxo, erlojutxo!
beti bueltaka,
egunero...

Gauza guztietan ateratzen zara.
Nekatuta?

Digitalean jartzen bazara,
lasaitzeko hartu denbora:
hirurogei segundo egin
eta minutu osoa pasata.

Iker Zabaleta



Nora Bravo

Animaliak bi altxorren bila

Oihanean, aspaldi-aspaldian, zazpi animalia bakar-bakarrik bizi ziren.

Egun batean zuhaitz bati hau aditu zioten:

—Itsasoan altxor bat dago eta Hego poloan beste bat! Baina, kontuz, oihan honetan ez zarete bakarrik, dragoi bat dago; eta Hego poloan eta itsasoan beste bi dragoi daude!

Hitz egiten bukatu zuenean, berriro zuhaitz arrunta bihurtu zen.

Zuhaitza isildu eta pixka bat geroago animaliek esan zuten:

—Dragoiak akabatu behar ditugu eta bi altxorrekin geratuko gara.

Oinez hasi ziren eta, Hego polora ezin zutenez ailegatu, hau esan zuten:

—Hegazkin bat egin behar dugu!

Eta bi hosto handi, ertain bat eta makilekin hegazkin bat egin zuten. Hegazkinez, Hego polora iritsi ziren.

—Hego polora iritsi gara! —egin zuten oihi.

Oinez hasi ziren eta Hego poloko dragoiarekin topo egin zuten. Dragoiak lehenengo altxorra zeukan, baina ezin zuten dragoia gainditu. Orduan, beren hegazkina hartu eta oihanera itzuli ziren.

—Oihaneko dragoia gainditu beharko dugu.

Baina hura ere ezin izan zuten gainditu...

Uretan ezin zutenez arnasarik hartu, ezin izan zuten itsasoko altxorrik ere bereganatu.


Azkenean, pentsatu zuten:

—Zertarako behar ditugu bi altxor, bakarrik bagara?

Eta altxorrik gabe geratu ziren.

HALA BAZAN ETA EZ BAZAN, DRAGOIAK DAUDE ALTXORREN ONDOAN!

Blas Esnal



Martin Iriondo

Kolore gabeko herria

Bazen behin oso herri polit bat. Hango alkateak altxor ezkutu bat zuen, eta hura zen kolorea ematen ziona herriari. Altxor hura gabe, herria txuri-beltza izango zen. Jendea oso pozik zegoen, beste herritan baino kolore gehiago zeudelako berenean. Herriak Kolorelandia izena zuen.

Baina, egun batean, lapur bat etorri zen eta altxorra lapurtu zuen. Herri hura orain oso itsusia bihurtu zen eta jendea oso triste zegoen. Gainera, ezin zuten ezta Erromako zubia ere ikusi. Beren kaleak txuri-beltzak bihurtu ziren bat-batean; mendiak, grisak...

Herriko guztiak elkartu eta lapurraren bila abiatu ziren. Berehala aurkitu zuten; baina lapurrak, herritarrak bere kontra zihoazela ikusi zuenean, altxorra puskatu egin zuen.


Eta zer gertatu zen, orduan? Kolorelandian lehen zituzten koloreak ez zirela bueltatu. Baina beste herrietan zeuden koloreak, bai. Beraz, handik aurrera beren herria besteak bezalakoa bihurtu zen. Baina, hala ere, jendea konforme geratu zen eta, handik aurrera, ere pozik bizi izan ziren betirako.

Aaron Salsamendi

Birziklatu!

Ai, zaborra!
Goazen birziklatzera!
Birziklatzen ez duenak
kaltea munduari.
Munduari kalte egiten diona
gaizki dabil!
Zergatik ez birziklatu?
Horrela denak ondo ibiliko gaituk!

Leire Olariaga



Maria Iturriza

Kolorez kolore

Zerua urdina, belarra berdea,
Erromako zubia da koloretako zubi luzea.
Ea denon artean lortzen dugun
mundua kolorez betetzea.
Mugi-mugi!
Mundua kolorez betea!

Candy Ostolaza

Marrazo ausarta

Behin batean, Ozeano Atlantikoan marrazo bat bizi zen.

Marrazoa oso handia zen eta hamar urte zituen. Grisa eta zuria zen eta hortz zorrotz-zorrotzak zituen.

Horregatik, arrainak harrapatzen oso ona eta azkarra zen. Marrazoa oso ausarta zen eta kokoteraino zegoen beti itsasoan bizitzeaz. Lurra ikusi nahi zuen. Baina berak bazekien ezin zuela arnasa hartu lurrean eta, horregatik, triste bizi zen itsasoan.

Egun batean, marrazoa arrainak harrapatzen ari zela, arrantzale batzuk etorri ziren. Marrazoak, arrantzaleak ikusi zituenean, azkar-azkar ihes egin zuen igeri.


Baina, beste egun batean, marrazoa distrahituta zegoen eta arrantzaleak etorri ziren berriro eta harrapatu egin zuten. Marrazoa pixka bat beldurtuta zegoen, ez zekielako zer egingo zioten. Baina arrantzaleek Donostiako Aquarium-era eramane zuten bizitzera.

Aquarium-ean lagun asko egin zituen, baina berak itsasora bueltatu nahi zuen. Egun batzuk geroago ideia bat bururatu zitzaion: Aquarium-eko kristalak puskatu eta ihes egitea. Kristalaren kontra jarri zen eta bultza eta bultza hasi zen. Indar handia egin ondoren, kristalak puskatu egin zituen eta, segidan, itsasora abiatu zen.

Gau eta egun igeri egin ondoren, Ozeano Atlantikora iristea lortu zuen.

Berriro bueltan zegoela ikusitakoan, oso pozik sentitu zen eta han geratu zen betirako.

Sergio Hernandez



June Iradi

Etxe ibiltaria

Euskal Herriko herri txiki batean bazegoen etxetxo polit bat, zuhaitz eta jolastoki ederrak zituen parke baten ondoan. Parkera joaten ziren guztiek etxeari begiratu eta esaten zuten:

—Bai etxe dotorea! Hor biziko nintzakete!

Etxe hartan Patxi izeneko mutil bat bizi zen, bakar-bakarrik. Egun batean paseo bat ematera joan zen. Etorri zenean, etxea ez zegoen eta mendira joan zen haren bila. Han ere ez zegoen. Gero, hondartzara joan zen eta han aurkitu zuen bere etxea. Barrura sartu zenean, etxea ibiltzen hasi zen; baina Patxi ez zen konturatzen eta, leihoa ireki zuenean, Ipar poloan azaldu zen. Geroago, kalera atera zen eta eskimalak ikusi zituen. Ia-ia sudurra izoztu zitzaion! Eta etxeak esan zion:

—Begiratu armairuan.

Orduan, Patxik armairuan begiratu zuen eta eskimalek erabiltzen dituzten bezalako jantziak aurkitu zituen. Arropa hura jantzi zuen eta eskimalekin jolasten hasi zen. Bat-batean, berarekin jolasten zebilen eskimala uretara erori zen. Orduan, Patxik ere uretara salto egin zuen. Uretatik atera zuen eskimala eta etxera eramanean zuen. Baina eskimala ez zegoen gustura Patxiren etxean eta, etxeak hori jakin zuenean, uretan sartu zen. Ura oso hotza zegoen eta etxea izoztuta atera zen uretatik. Horrela, eskimalaren etxea bezala jarri zen. Baina Patxiren etxeak berogailuak zeuzkan eta etxea desegiten hasi zen. Eskimalak, hura ikusita, bere ama eta aitarekin joan zen.

Hurrengo egunean etxea Afrikara joan zen eta hango ume bat hitz egiten hasi zitzaion etxeari eta etxeak ulertzen zion, baina Patxik ez zion ulertzen. Etxeak umeak esaten zuen guztia itzultzen zion Patxiri. Hau esaten ari zitzaion:

—Nahi al duzu nirekin jolastu?

Eta Patxik esan zion baietz esateko. Eta etxeak afrikarrari baietz esan zion. Horrela, Patxi eta Afrikako umea jolasten hasi ziren. Baina baloia ibaira joan zitzaion eta umea negarrez hasi zen. Patxik beste baloi bat atera zuen bere armairutik eta jolasten jarraitu zuten. Gaua iritsi zenean, Afrikako umeak eta Patxik batera afaldu zuten eta kontuak elkarri kontatzen hasi ziren. Patxi loguratuta zegoenez, etxe barrura sartu zen deskantsatzera. Hurrengo egunean etxea berriz mugitu zen eta ez zegoen Afrikan. Afrikako umea triste jarri zen.

Baina Patxik eskimalei eta afrikarrei eskutitzak bidaltzen zizkien triste ez egoteko. Horrela, Patxik mundu guztiko lagunak egin zituen.

Xiao Iturbe



Maialen Orbañanos

Tximua

Ni tximua banintz,
platanoak jango nituzke,
platanoak jango banitu,
beteta geratuko nintzateke,
beteta geratuko banintz,
lo geratuko nintzateke,
lo geratuko banintz,
amets politak egingo nituzke,
amets polit horietan
zu agertuko zinateke.

Larraitz Lopetegi

Amonatxo

Amonatxo, amonatxo!
zenbat muxutxo!
Igandero paga!
Zu bai polita!

Zeinek ez dauka
amonatxo bat?
Ze pena!
Amonatxoak
txintxoak dira gurekin.

Nik bi.
Zein amonatxo politak
nireak!
Muxu handi bat
nire
bi amonaxoei.

Ana Manterola



Udane Ostolaza

Ametsetako txakurra


Bazen behin neskata bat txiki-txikitatik txakur bat izatearekin amets egiten zuena. Neska horrek Maialen zuen izena. Zortzi urte zituen eta altua, argala, begi urdina eta ile horia zuen. Izaera, berriz, atsegina, bihozbera eta oso lagunkoia. Bere amak Karmele zuen izena eta hura ere begi urdina zen; benetan emakume atsegina eta oso langilea. Amak ile beltza zuen. Aitak Juan zuen izena eta apur bat erretxina zen, baina barru-barruan oso gizon ona. Altua zen eta begi marroiak zituen, ilea marroi iluna zuen eta, potxolo samarra bazen ere, oso kirolari trebea zen. Nebak Josu zuen izena eta oso txan-txazalea zen. Begi beltzak eta ile beltza zituen eta argala zen.

Gabon gaua familiarekin ospatu ondoren, Eguberri eguneko zatirik onena zettorren: opariak! Maialen eta Josu gurasoen gelara joan ziren, gurasoak esnatzera. Denak egongelara joan ziren eta hantxe, Gabonetako zuhaitzaren azpian, gauean Olentzerok isilisilik utzitako opariak ikusi zituzten. Lehenengo amak zabaldu zituen eta ezpainetako gorria eta etxeko zapatilak jaso zituen. Gero aitak zabaldu zituen eta larruzko kartera eta mendirako tresneria ikusi zuen. Ondoren, Josuk zabaldu zituen eta tipex bat, wii-rako joko bat eta arropa jaso zituen eta, azkenik, Maialenen txanda iritsi zen. Sabela dantzan zuen, ezin zuen sinetsi ikusten zuena: txakur bat zen egurrezko otar polit batean. Momentu hartan etxean sekulako poza egon zen. Maialenen txakurraren arraza bitxoi maltarra zen eta Kimu deitu zioten. Oso txakur polita zen; gainera, txiki-txikia zen: astebete izango zuen, gutxi gorabehera. Lasterka joan ziren janaria, lepokoa, ura, zepiloa, xanpua, paseatzeko katea... erostera. Oso txakur zintzoa eta esanekoa zirudien eta Maialen eta bien arteko lotura berehalakoa izan zen.

Egunero Maialen goiz-goiz jaiki eta txakurra paseatzera irteten zen. Kaka mordoa egiten zuen eta Maialenek dena garbitu behar izaten zuen. Arratsaldetan lagunekin geratzen zen eta denak poz-pozik txakurrarekin jolasean egoten ziren; baina gauean zaunka eta zaunka hasten zen eta gurasoek pentsatu zuten txakurrarentzako ez zela leku egokia eta, nola edo hala, etxetik eraman behar zutela. Bazekiten Maialenek izugarritzko pena hartuko zuela eta ez ziren ausartu egia esatera. Baina plan bat pentsatu beharra zeukaten, auzoko guztiekin haserretu nahi ez bazuten behintzat.

Gurasoek esan zieten seme-alabei txakurra albaitariarengana eramateko garaia iritsi zela eta segituan itzuliko zirela. Albaitariarengana zihoazenean, beren herritik hamar bat kilometrora, txakurra bideko gasolindegia ren txoko batean utzi eta etxera itzuli ziren. Bueltatutakoan, esan zieten umeei txakurrak gaixotasun arraro bat zuela eta hil egin zela. Umeei izugarritzko pena hartu zuten eta baita gurasoek ere beren barruan, baina penak gainditu eta bizitza normalari ekin zioten berriro.

Bi aste geroago izugarritzko sorpresa hartu zuten denek. Gauean, denak afaltzen ari ziren bitartean, txakur zaunka entzun zuten ate ondoan: Kimu txakur txiki alaia berriro



Irati Uranga

etxera etorri zen. Hasieran Maialenek ezin zuen ezer ulertu, baina pozez txoratzen zegoen Kimu bere txakur maitea berriz berekin zegoelako. Hura ikustean, gurasoak harriturik geratu ziren eta ulertu zuten ez zegoela txakur batena baino maitasun handiagorik.

Miren Genova

Amatxo basatia

Egun batean nire amatxo maitea erosketak egitera joan zen. Etxera etorri zenean, animalia basati bat bezala jokatzek hasi zen. Afaltzeko, arrain gordina jarri zigun, Oria ibaitik bere eskuekin harrapatutakoa. Bai, bere eskuekin harrapatutakoa!

Hurrengo egunean, kiroldegiko igerilekura joan ginen. Nire amak 50 joan-etorri egin zituen minutu batean. A, zer errekorra! Igerileku txikian ere ia 10 minutu iraun zituen ur azpian. Murgil egiten arraina ematen zuen. Igerilekutik atera ginenean, meriendarako, berriro bere eskuekin harrapatutako arrain gordin bera eman zigun... baina ogitartekoan.

Beste batean, arratsaldean, nire ama eta ni parkera joan ginen jolastera. Halako batean, 5 urteko ume bati bere merienda kendu zion. Txirristatik ere bultza egin zion 2 urteko ume bati, jaisten ari zela. Besteetan ez du hori egiten, baina bai, egun horretan egin zuen.

Gau batean, afaltzeko, alboko baserriko baserritarraren dozena bat ardi lapurtu zituen. Larrua eta guzti jan izan behar genuen! Aaagggghh, ze txarra! Postrerako, Antartidako pinguinoen haragia jarri zigun. Oso txarra hura ere.

Aitatxok eta nik amatxo herriko magoarengana eramatea pentsatu genuen. Nik aitari esan nion:

—Aitatxo, oso arriskutsua da.


—Lasai, txikito, ez zaio ezer pasako amatxori.

—Eta mina hartzen badu?

—Zu egon isilik eta ez zaio ezer pasako.

Magoarengana joan ginenean, amatxok ontzi magiko bat ukitzera joan behar zutenean, ahots batek esan zion:

—Ez ukitu hori, oso ahaltsua da eta.



Narva de Andres

Magoa zen!

—Zer nahi duzue? —esan zuen magoak.

Aitatxok erantzun zion:

—Guk ama basakeriarik ez egitea eta lehen bezalakoa izatea nahi dugu.

—Ongi, ba! Egingo dut.

—Eskerrik asko, eskerrik asko, eskerrik asko!

Hurrengo egunean amatxo ongi zegoen. Ai, ze poza!

Jon Marquez

Nire aitona

Nire aitona da dudan bakarra.

Bertsoak kantatzen dizkit

niri belarrira.

Nirea da eta ez beste inorena.

Besteena ez da

nirea bezala, norberak baitu berea.

Horregatik da nirea,

mundu osoan bakarra.

Izugarri maite dut,


horregatik olerki hau izango da,

berarentzat ederra,

beti egongo baitzara,

nire alboan, aitona.

Alexander Azkue



Leire Olariaga

Koloreak

Astelehena bihurtu da gorri,
astea hasteko buru-belarri.
Asteartea bihurtu da urdin,
badaukat nik, nahiko buruko min.
Asteazkena bihurtu da hori,
astearen erdian gaude gori-gori.
Osteguna bihurtu da more,
asteburua gainean dugun seinale.
Ostirala bihurtu da marroi,
egun hau gustatzen zaigu denoi.
Larunbata bihurtu da berde,
pozaren kolorea baita ere.
Igandea bihurtu da arrosa,
beti baita egun hau panpoxa.
Asteak badituela mila kolore,
Bakoitzak egiten duelako
egun bakoitza bere.

Intza Erkizia

Baloi berezia

Bazen behin Lukas izeneko ume bat. Zegaman bizi zen eta oso zoriontsua zen bere baloiarekin jolasten zuen bitartean. Baloi hura oso gogoko zuen Lukasek: Olentzerok ekarritakoa zen, Xabi Prietok sinatu ondoren.

Egun batean, jolasten ari zela, baloia uretara erori zitzaion eta, nahiz eta harrapatzen saiatu, urak oso azkar jaisten ziren ibaian. Bazekien ezin izango zuela hartu, oso urruti baitzegoen.

—Beste herri bateko ume batek hartuko du —pentsatu zuen Lukasek.

Baloia, bere kasa, bazihoan bere bidaian: Segura, Olaberria, Beasain...

Batera eta bestera mota guztietako tokiak ikusi zituen. Tolosatik pasaeran, jendea mozorrotuta ikustean, inauteriak zirela jakin zuen.

Estropadetan ere ari ziren eta arraunaz jo zuten.



Naila Orzaiz

—Hartuko al dugu baloia e? —galdetu zuen arraunlari batek.

—Segi arraunean! —erantzun zion, zakar, patroï zihoan mutilak.


Gauean, berriz, itsu-itsuan ibili zen. Eta horrela jarraitu zuen baloiak bere bidaia: Anoeta, Irura, Villabona... Lasartetik pasatzerakoan, zaldi lasterketa ikusi zuen. Zaldi haiek ez ziren orain arte baserri inguruan ikusitakoak bezalakoak. Lasarteko haiek dotoreagoak ziren.

Lasartetik aurrera, dena irri-arra batean pasa zuen eta, handik pixka batera, bere burua ur gainazalerago nabarmendu zuen: ura gazia bihurtu zen! Itsasoak gertu behar zuen.

Itsaso handian betirako galduko zela pentsatzen ari zen unean, baloiak haurren oihuak entzun zituen. Orioko ikastolaren parean zegoen eta han zegoen Lukas, eskolako irteera batean; Orion, hain zuzen!

Mutikoak, bere baloia ikustean, a ze nolako bihotz ondokoa eraman zuen! Lasterka joan zen hura berreskuratzea. Oso pozik itzuli zen Lukas Zegamara. Baloi berezi hura bere gelan utzi eta aurrerantzean hobeto zainduko zuela hitz eman zuen.

Mikel Eizagirre



Candy Ostolaza

Erle lagunak

Egun batean Orio izeneko herri txiki batean erle handi bat ikusi zuen Lander izeneko mutiko ausart batek. Etxera eraman nahi zuen. Etxera iritsitakoan, ezia eman zion. Handik egun batera 5 cm gehiago handitu zen. Erle hura beste planeta batetik etorria zen.

Handiegia egin zenean, poliziari deitu zion, Lander beldurtuta baitzegoen. Poliziek ez zekiten nondik nora jo eta 51. lursailera eramatea erabaki zuten. Hainbat froga egin ondoren, beste planeta batekoa zela ohartu ziren. Froga gehiago egin behar zizkieten eta denbora baterako 51. lursailean uztea erabaki zuten.

Landerrek faltan botatzen zuen erle gizajoa eta zientzialariengana jo zuen. Zientzialariek ez zioten erlea eramaten utzi. Urte bat pasa eta gero abisatuko ziotela esan zuten. Etsita, etxera joan eta erle berezi hartaz ahaztea erabaki zuen.

Bitartean, erleak bere lagunei laguntza-mezuak bidali zizkien beren hizkuntzan. Erle erraldoiaren planetako armada guztia lurrera etorri zen eta 51. lursaila bereganatu eta zientzialari guztiak atxilotu zituzten.

Urte pasa eta Landerrek ez zuen zientzialarien berririk eduki.

Lander, Leon, Alis eta Axi jolastera joan ziren arratsalde batean, eta 51. lursailetik pasatzea erabaki zuten.

Iritsi zirenean, erlauntza erraldoi bat zegoen! Atean bi metroko bi erle zeuden, bakoitzak lantza bat eta beren ipurdiko ezten beldurgarria agerian zuela.

—Erlauntza bota behar dugu!

Gerturatu zirenean, erleak berehala konturatu ziren gizakiak zirela.

—Nola jakin duzue hemen ginela?

—Usaina, mutiko... Gizaki usain hori ezin dugu jasan!


Landerren erlearengana eraman zituzten. Landerrek topatutako erlea erregea baitzen.

—Gogoratzen naiz zurekin. Oso ondo zaindu ninduzun. Zer da nahi duzuna?

—Zientzialariak libre uztea eta zuen planetara joatea.

—Kasu egingo dizut. Gure herrira bueltatuko gara, baina hemendik urte batera bueltatuko gara eta orduan betirako izango da.

—Ados.



Narva Arriaran

Erleek beren gauzak gorde eta zitzu bizian joan ziren.

Lander eta bere lagunak poztu ziren, baina bazekiten urte bat zutela zerbait pentsatzeko; bestela, beren mundua erlauntza erraldoi bat bihurtuko zelako.

Libre gelditutako zientzialariak eskertzero joan zitzaizkien.

—Entzun dugu esan dizun guztia. Nahi baduzu, gure laguntza edukiko duzu beren kontrako arma bat asmatzeko.

—Eskertuko genuke!

Bederatzi hilabete pasa zituzten arma berria asmatzen. Umbrella Corporations deitu zioten eta, froga guztiak egin ondoren, erleen etorreraren zain gelditu ziren.

Eguna ailegatu zenean, denak oso urduri zeuden. Aurrekoan baino erle gehiago azaldu ziren, askoz ere gehiago. Zientzialariak lasai zeuden.

—Esan genuen bezala, hemen gaude, eta gelditzeko asmoarekin...

—Behin lagun bat bezala zaindu zintudan. Gaur, lagun bat bezala baita ere, joateko eskatu behar dizut... gure eskutan dagoen arma ez erabiltzeko.

—Ez dago gu akabatuko gaituen armarik... Zer... zer da usain hori?

—Gizaki usaina da: Umbrella Corporations.

—Umbrella Cor...

Konturatzerako, erle asko ziplo erortzen hasi ziren eta beste batzuk bueltako bidea egiten. Bost minututan lurra libre zegoen. Gizaki usaina gailendu zen.

Lander Santos



Maddi Esnal

Ilusio bila

Ilusio bila Orioko merkatura
abiatu naiz...
Gorakada handia, gorakada ikaragarria,
jasan du ilusioaren salmentak.
Azkenean,
nire saski hutsa besapean hartuta,
iritsi naiz etxera.
Ilusioa krisian dago, alde egin du Txina aldera.
Joan egin da, joan egin da, egin da joan.
Garesti dago,
garestia da begien distirari eustea,
garestia ametsak egitea,
eta debekaturik dago bihotzari kasurik egitea,
irriari esku ematea.
Ezer ez, batere ez
batere ez, ezer ez.
Horiek dira eguneroko leloak,
telebistako mezuak,
Orioko merkatuko saltzaileen hitzak.
Nik, ordea, ez dut etsiko
eta ostegunero joango naiz,
hutsik egin gabe,
nire herriko azokara
ilusio bila.

Elene Elizondo



Sofia Lertxundi

Pozaren inbentarioa

Hiru platerkada irribarre babarrun,
zenbait katilukada ilusio esne,
edertasun kilo bi,
andereñoak ipinitako lehen hamarra,
kolakaoaren zapore goxoa,
albistegietan guduak amaitu direla dioten mezu desiragarriak,
bost dezibeliotako besarkadak,
Jon, Markel eta Uxue goizaldean jaioberriak,
erakusleihoetako betaurreko distiratsuak,
amona Pepiren laztan beroak,
Itxaspeko ibilaldi lasaigarriak,
poza bera,
Oria ibaiko bapore kuttunak...
Pozaren inbentarioa berrikusi dut,
arretaz,
hainbat arrazoiengatik,
sobera legokeenagatik,
garestia izan daitekeelako,
zorrak egin ditzakedalako...
Ametsetan pozaren inbentarioa mardulagoa da,
sakonagoa,
indartsuagoa...
errealitatetik ametsetara, ordea,
alde infinitua dago,
horregatik ezin da bertan sar
zuk emandako lehen muxua.

Beñat Sarasua



Aida Makazaga

Pottolo zuhaitza

Ba omen da Orion zuhaitz maitagarri bat. Gure aiton-amonek kontatzen dutenez, gaztetan Pottolo izeneko zuhaitzarekin hitz egitera joaten ziren; haren magalean eseri, eta kontu-kontari egoten ziren.

Nereak, 11urteko neskatxa batek, zerbait entzunda du zuhaitz horri buruz, eta ezagutu nahi du. Aitonarengana joan da eta galdetu dio:

—Aitona, kontatu didate herrian hitz egiten duen zuhaitz maitagarri bat dagoela. Egia al da?

— Bai, egia da. Pottolo izena du, San Martinen dago —erantzun dio aitonak.

Nereak motxila hartu eta San Martin aldera abiatu da. Iritsi denean, zuhaitz bat baino gehiago ikusi ditu, baina bat desberdina iruditu zaio. Zuhaitz oso dotorea da, enborra sendo-sendoa du eta adar luzeak ditu. Haren itzalpean eseri da eta bat-batean zuhaitza hitz egiten hasi zaio:

—Kaixo, neskatxa, nola duzu izena?

—Nerea naiz, eta zu?—galdetu dio neskak.

—Niri Pottolo esaten didate, enbor sendoa dudalako —erantzun dio zuhaitzak.

Eta biak kontu-kontari hasi dira.

Une batean Nereak galdetu dio nola ikasi duen hitz egiten; orduan, zuhaitz maitagarriak bere istorioa kontatu dio:


—Ni Lore izeneko neska batek landatu ninduen. Egunero-egunero etortzen zen, ni nola nengoen ikustera; nire ondoan eseri eta hitz egiten zidan. Oraingo gizakiok ez dakizue; baina, garai hartan, antzina, zuhaitz guztiek hitz egiten genuen. Denborarekin gizakiak mendira joateari utzi zion, inor ez zen zuhaitzekin hitz egitera etortzen eta pixkanaka mutu geratzen hasi ginen. Ni, mutiko bati esker, ez naiz mutu gelditu. Mutikoak Iokin izena zuen eta, bizi bada, 76 urte izango ditu.

Nerea harrituta gelditu da: bere aitonak 76 urte ditu eta Iokin izena du. Pottolori azaldu dio bere susmoa eta, korrika, aitonaren bila joan da.

—Aitona, Pottolo zuhaitza ezagutu dut eta uste dut zure adiskidea dela —esan dio Nereak.

Aitonak baietz esan dio eta, biak elkarrekin, San Martin aldera abiatu dira.

Iritsi direnean, aitonak, besoak zabal-zabal jarrita, Pottolo besarkatu du. Ondoren, haren itzalpean eseri da eta, denbora luzez, txikitako kontuez aritu dira.



Dania Alguacil

—Pottolo, etortzen al zaizu norbait bisitan? —galdetu dio aitonak.

Zuhaitza triste jarri da eta honela erantzun du:

—Aspaldiko partez, zuek izan zarete bakarrik.

—Alaitu zaitez, Pottolo! Hemendik aurrera, gu biak egunero etorriko gara bisitan —esan dio aitonak.

Iluntzen hasi da eta, 'bihar arte' esanez, iloba eta aitona etxerantz abiatu dira; baina, bidean, aitonak zoritxarra izan du: estropezua egin eta hanka eta bi saihets puskatu ditu.

Hori dela eta, hilabete pasa da Nerea eta aitona ez direla zuhaitza bisitatzera joan. Poliki-poliki, aitona osatuz doa eta, beraz, Nereak zuhaitz maitagarria bisitatzera pentsatu du. San Martinera iritsi eta azkar-azkar Pottolorengana joan da. Besarkada handi bat eman dio, baina zuhaitzak ez dio kasurik egin, minduta baitago. Neskatzak gertatutakoa kontatu dionean, adiskidetu da eta, aurrerantzean, arratsaldero-arratsaldero, Nerea zuhaitzaren magalean eserita, biak kontu-kontari aritzen dira.

Baina uda heldu denean, neskatzak ez du egunero San Martinera joan nahi eta hau esan dio zuhaitzari:

—Pottolo, hemendik aurrera eguraldi txarra egiten duenean etorriko naiz, eguraldi ona egiten duenean hondartzara joango naiz-eta.

Zuhaitzari ez zaio gustatu Nereak esandakoa eta, amorru biziz, gehiago ez etortzeko esan dio.


—Lasai, gehiago ez naiz bueltatuko eta! —erantzun dio Nereak haserre aurpegia-ekin.

Etxera abiatu denean, zuzenean aitonari haserre kontatzera joan da, eta aitona hilda aurkitu du. Negarrez, zeharo atsekabetuta, aitonari zin egin dio gehiago ez duela Pottolo bakarrik utziko. Hurrengo egunean, guztiz penatuta, Pottolorangana joan da. Iritsi da San Martin ondoko basora, baina ez du Pottolo ikusi. Haren tokian enbor zati bat eta zuhaitz kimu txiki bat besterik ez ditu aurkitu.

Begietan malkoak dituela, bere bi eskuekin kimu txikia landatu du.

Urte batzuk pasa dira, kimu txikia zuhaitz dotore bihurtu da, enborra sendo-sendo duena eta adar luzeak dituena.

Irati Gonzalez



Gorka Amas

Arazoak denbora laburrean konpondu zituen neska

Bazen behin hamalau urteko neska bat, Elene izenekoa. Orion bizi zen eta ez zituen lagun asko, haiek burlaka ibiltzen zitzaizkiolako gau eta egun. Benetan gaizki pasatzen zituen egunak eta horrela zeramazkien bere hamalau urte luzeak. Ez gurasoek, ez familiakoek eta ez andereñoek, ez zioten lagundu bere arazoa konpontzen. Beldur handia izaten zuen etxetik irteteko, ikara lagunekin topo egiteko; baina, jakina, herria txikia zenez, gehienetan tokatzen zen norbaitekin.

Udaberriko goiz bero batean, Elene ikastolarantz zihoala, bere etsairik handienarekin egin zuen topo. Mutil haren izena, Patxi zen. Eleneri iseka egiten zion. Oso gizona zegoela esan eta esan pasatzen zuen eguna. Goiz hartan Patxik esan zion Eleneri:

—Aizu! Baina begiratu al zara gaur ispiluan? Ikusi al duzu zeinen gizona zauden? Gizona ez egoteko, gutxi jan behar duzu eta kirola gehiago egin, balea handi bat ematen duzu eta! Ja, ja, ja!

Elene isil-isilik geratu zen. Barru-barruan izugarrizko amorrua sentitzen zuen.

Irudituta hitzek nahiko min ez ziotela egin, Patxi beregana hurbildu eta soinekoa puskatu zion, honela esanez:

—Orain ikusten al duzu zein gizona zauden? Begira, begira zure txitxiak zintzilika. Polita, zure burua edertzeko formula doan emango dizut: Asko ez jatea, aurpegia ondo margotzea, soineko eta gona motzak eta estuak eramatea eta takoi handidun zapatak edo botak soinean eramatea. Ja, ja, ja! Orduan, badakizu zer egin.

—Bai, zera! Ni ez nago gizona eta ez naiz itsusia! Besteei iseka egin aurretik, zure buruari egin behar diozu —oihukatu zion, benetan haserre, Elenek.

Patxi harrituta geratu zen. Lehenengo aldia zen norbaitek modu horretan erantzuten ziona eta esandakoak ere zer pentsatua eman zion. Etxeratutakoan, amari kontatu zion gertatutakoa eta amak horrela erantzun zion:

—Ba, seme... oraingo honetan Elenek du arrazoi eta ez zuk! Lehenengo gure buruari iseka egiten ikasi behar dugu eta guri gustatzen ez zaizkigunak ez dizkiegu besteei egin behar.

—Bai, zera! Zuk beti eman didazu arrazoi niri eta orain, bat-batean, ez. Elene gizona dago, bere itxura narrasa da eta aldatu behar du. Nazka ematen du!

Patxi, zeharo haserre, bere bizikleta hartu eta kalera irten zen. Kalean Elene ikusi zuen berriro bere lagunekin eta berengana hurbildu zen. Elene, orduan, haserre itxu-



Ibai Aranguren

rarekin, alde egiten saiatu zen; baina Patxi aurrean jarri eta bu-ruarekin ezetz esaten zion. Aurreko gaiarekin jarraitu nahi zuen. Errua, gertatzen zitzaion guzti-guztia, berea zela esan zion; alegia, bere gizentasunagatik zituela arazoak jendearekin.

Baina kontua da Elene ez zegoela hain gizona, pixka bat baino ez. Elene, minduta saihetsetaraino, etxera joan zen.

Handik pixka batera, amak esan zion:

—Elene, afaltzeko ordua da! Etorri sukaldera!

—Bai, ama, oraintxe noa —erantzun zion Elenek.

Baina Elenek argala egon nahi zuela erabaki zuen eta egun hartan ez zuen afaldu, ura bakarrik edan zuen.

Amak, harriturik, galdetu zion:

—Maitea, zergatik ez duzu afaldu nahi?

Elenek ez zion ezer erantzun.

—Erantzungo al didazu?

Alferrik. Elenek ezer kontatu gabe jarraitzen zuen. Ohera joateko ordua iritsi zen, gurasoei muxu handi bana eman eta ohean sartu zen. Amak esana zion arazoren baten aurrean, azkar kontatzeko eta Elenek baietz esan zion. Esan bai baina egin... ez zion Patxik esandakoaren zati txikiena ere kontatu. Hilabete bat igaro zen. Azkenean, lagunak konturatu ziren Eleneri zerbait gertatzen zitzaiola eta berarengana jo zuten.

—Elene, zer gertatzen zaizu? Ez da, ba, izango Patxik esaten dizulako gizona zaudela ezta? —galdetu zion Anaidak.


—Oso argala zaude! Eta... zapata horiek? Takoi handiegia dute. Horrelako soineko-rik ez duzu zure bizitza osoan jantzi eta, gainera, estuegia da!

Elenek baietz esaten zuen buruarekin, arrazoi zutela esanez.

—Baina, Elene! Horrela ezin duzu jarraitu! Argalegia zaude, soineko eta gona estuegiak ez dira politak, aurpegia margotuta daramazu eta takoi handidun zapatak ez dira aproposak zuretzat. Zu ez zara horrelakoa. Zure benetako izaerak garrantzia gehiago dauka, horrela ibiltzeak baino —esan zion Amaiak haserre bizian.

—Arrazoi duzu, Amaia; baina, ni naizen bezala janzten banaiz, jendeak barre egiten dit —erantzun zion Elenek, malco dario.

Elenek bere benetako izaera aldatzeko erabakia hartu zuen eta oraindik ere tinko eusten zion ideia horri. Lehenago ere ahaleginak egindakoa zen. Batzuetan asko gizendu zen eta ez zitzaion arropa sartzen. Gero berriro argaldu... Baina oraingo honetan gehiegi argaldu zen.



Laida Urbitarte

Amak medikuarengana joan behar zutela pentsatu zuen. Hainbeste aldiz argaldu eta gizentzea ez zela normala eta. Elenek ezetz eta ezetz esaten zion amari. Amak, orduan, Orioko anbulatoriora eramatea zaila izango zuela aurreikusirik, Donostiako kontsulta pribatu batera hurbiltzea erabaki zuen.

—Medikuarengana goaz! Anbulatorioko usaina da hemen dagoena eta oso nabarmena da gainera!

Elenek korrika alde egin zuen. Ama harrituta geratu zen alabaren portaerarekin, baina pazientzia handiz hartzea erabaki zuen. Etxera itzuli eta, bazkaria prestatzen ari zela, Elene gelatik irten eta amarengana hurbildu zen:

—Barkatu, ama, horrela joan izanagatik. Ez dut berriro ere egingo. Arazoak ditudala esan behar nizun aspalditik, baina ez dut momentu egokirik bilatu, hitz egiten hasteko.

—Ea, ba, konta iezadazu zure arazoa zein den —esan zion amak goxo-goxo.

—Ba... argalegia nagoela eta ez dakit zergatik gertatzen zaidan hori. Ez dut gose handirik edukitzen eta Patxirengatik orain soineko eta gona estuegiak janzten ditut. Eta hori ez da dena...

—Zer da, ba?

—Oinak min ematen didate takoi handiegiak erabiltzeagatik eta hau ere Patxirengatik da.

—Bueno, janari garbia eta ez oso astuna jaten hasiko zara, inportantea baita ondo elikatuta egotea.

—Eskerrik asko, ama, zure beharra dut zulo beltz honetatik ateratzeko eta!

Iritsi zen hurrengo eguna, igaro zen hurrengo astea eta Elenek berdin jarraitzen zuen, batere goserik gabe. Baina amak gogor egiten zion eta jan egin behar zuela esaten zion behin eta berriz. Berak, ezetz eta ezetz.


Ama, orduan, negarrez hasi zen. Elenek, egoera horretan, ahalegindu egingo zela erabaki zuen eta, horrelaxe, pixkanaka-pixkanaka, jaten hasi zen. Bi hilabete pasa ziren eta, ezetz asmatu zer gertatu zen?

Ba, Elenek kiloak irabazi zituela eta osasuntsu zegoela. Betiko arropa janzten hasi zen Gure betiko Elene izatera pasa zen berriz.

Eta Patxi? Ezetz asmatu! Patxi mutil jator-jatorra bihurtu zen; hori bai zegoela ondo!

Biek ikasi zuten zer bait: hitzek min handia egin dezaketela eta jan gabe bat hil daitekeela.

Irati Egibar



Bizitza gogorra da

Bizitza gogorra da
maitea joaten denean;
bizitza gogorra da
eskutik ihes egiten duenean.

Ez ahaztu,
beti hemen edukiko gaituzula;
ez ahaztu,
zure ondoan izango gaituzu.

Ez utzi poztasuna
bihotzetik irteten,
ez utzi
irriari malko bihurtzen.

Ania Amilibia



Niobe Ferreira

Lagun maitea

Badakit oso gogorra dela
pasatzen ari zarena,
badakit aurrera
ateratzeko gai zarela.
Horretarako, zuk badakizu
ni hor egongo naizela.
Horretarako, atera ezazu
zure irribarre polit hori.
Bestela, edozer egingo dut
zu irribarrez ikusteko.
Bestela, ni ere negarrez
egongo naiz, baina beti zure alboan.
Nire laguna zara eta badakizu
maite zaitudala.
Nire laguna zara eta badakizu
beti hor egongo naizela.

Elene

Bizitzaren gorabeherak

2000. urtean, Orion Nerea izeneko neskatxa bat bizi zen bere gurasoekin. 8 urte zituen. Alturaz txikia zen eta argala, ileko kolorea marroia zuen eta begiak, berde. Bere familia pobrea zen eta egurrezko etxe txiki batean bizi ziren mendian.

Egunero herrira jaisten zen diru eske. Berak ikastolara joan nahi zuen; baina, pobreak zirenez, ezin izan zuen. Orion ez zuen ia dirurik lortzen eta lortzen zuenarekin janaria erosten zuen. Arratsalde batean Donostiara joatea erabaki zuen, Orion ez ziotelako dirurik ematen. Ez zekien nola joaten zen Donostiara eta menditik joatea erabaki zuen. Jendeari galdetuz, joateko bidea aurkitu zuen. Donostian diru gehiago ematen zioten eta gustura geratu zen. Baina, hiria denez, galdu egin zen eta, gainera, gaua zen eta ezin izan zuen etxera itzuli. Banku batean lotan geratzea erabaki zuen. Hotz handia egiten zuen eta ezin zuen lorik egin. Orduan, andre bat pasa zen. Ilea zuria zuen eta begiak urdinak; 66 urte zituen. Nerearen parean geratu eta hau esan zion:

—Kaixo!

—Hola —erantzun zion neskatzak.

—Nola izena duzu? —galdetu zion andreak.

—Nerea, eta zuk?

—Mari Jose. Zer egiten duzu ordu hauetan kalean bakarrik?

—Ez dakit nola itzuli Oriora eta hementxe geratuko naiz.

—Etorri nire etxera. Nik bihar lagunduko dizut Oriora itzultzen.

—Ongi da, eskerrik asko!

Biak Mari Joseren etxera joan ziren. Iritsi zirenean, Nerea harriturik geratu zen, etxea oso handia zelako. Pijama bat eman zion eta jantzi egin zuen. Ondoren, biak batera afaltzera joan ziren eta Nereak, mahaian txuleta patatekin ikusi zuenean, pozez saltoka hasi zen. Afaltzen hasi ziren eta Nereak probatutako txuletarik onena zen eta lehertu arte jan zuen. Afaldu eta gero, ohera joan ziren. Gela handi bat zuen beretzako bakarrik eta ohe handi bat... ezin zuen ezer gehiago eskatu.

Mari Jose gelan sartu zen.

—Bihar goizean lagunduko dizut gurasoak bilatzen —esan zion.

—Ongi da eta eskerrik asko guztiagatik, ez dakit nola eskertu nigatik egin duzun guztia —eskertu zion Nereak.

—Ez da ezer, lasai. Bueno agur, bihar arte!

—Bihar arte!

Hurrengo goizean, 10:30ak aldera Nerea esnatu zen eta lehenengo pisura jaitsi zen eta han zegoen Mari Jose. Gosaltzera joan ziren eta, amaitutakoan, Mari Josek emandako arropa jantzi zuen neskatzak. 11:30ak aldera autoan Oriora joan ziren, neskatzaren etxera eta tinbrea jo zuten, baina inork ez zien atea ireki. Erabaki zuten hurrengo egunean berriz joatea, eta hala egin zuten; baina orduan ere ez zeuden etxean. Egunero joaten ziren eta, bitartean, Mari Joseren etxean bizitzen geratu zen.

Azkenean, gurasoak bilatzeari utzi zioten eta Donostian ikastolan hasi zen Nerea. Neskatzak ikasle oso ona zen eta Mari Jose oso harro zegoen haren emaitzekin.

Hamar urte pasa ziren eta 2010. urtea txarrena izan zen Nerearentzat: abuztuaren 3an Mari Jose hil egin zen eta Nereak oso gaizki pasa zuen. Herentzia guztia jaso zuen: etxea, dirua... Etxe hartan bizitzen geratu zen eta arkitektura ikasten hasi zen, Donostian. Ikasten bukatu zuenean, enpresa batean lan egiten hasi zen eta, oso ona zenez, asko pagatzen zioten. Urte batzuk pasa ondoren, bere enpresa sortu zuen eta oso ondo eraman zuen. Diru asko zuen eta erabaki zuen pobreentzako jangela bat egitea Donostian, berak bazekielako zer den gosea pasatzea.

Asteartero jangela bisitatzera joaten zen eta, astearte batean, bere gurasoak ikusi zituen han. Sorpresa handia hartu zuen eta berengana joan zen korrika.

—Ama! Aita! —oihukatu zuen Nereak.

Gurasoak zutitu eta Nerearengana joan ziren. Une hartan hirurak pozez saltoka zeuden gertatutakoagatik.

—Zu al zara? Zenbat aldatu zaren! Gogo handia nuen zu berriro ikusteko —esan zion amak, pozez oihuka bera ere.

—Maitea! Zenbat denbora ikusi gabe! —esan zion aitak.

Besarkatu egin ziren eta jangelako guztiak berei begira geratu ziren. Hiruretako inork ez zuen espero momentu hura.

—Goazen nire etxera, nahi baduzue —eskaini zien Nereak.

—Eskerrik asko! Gauza asko ditugu elkarri kontatzeko —onartu zuen amak.

Etxera iritsi ziren eta biak harriturik geratu ziren etxe handi eta dotore harekin.

—Nola duzu zuk etxe hau? Eta jangela zurea ahal da? —galdetu zion aitak.

Nereak istorio guztia kontatu zien gurasoei eta galdetu zien ea zergatik joan ziren Oriotik.

Amak kontatu zion:

—Gu zure bila hasi ginen, oso larrituta geundelako; baina ez zinen agertzen eta egun batzuetan zu bilatzen ibili ginen herriz herri. Ez zinen agertzen eta, azkenean, Bilbon bizitzen geratu ginen. Orain dela gutxi entzun dugu hemen jangela bat dagoela eta etorri egin gara.

—Bueno, pasatakoa pasa da eta garrantzitsuena da hemen gaudela, denok batera. Nahi al duzue nirekin bizitzen geratu? —galdetu zien Nereak.


—Bai! Eskertzen dizut guregatik egiten duzuna —eskertu zion aitak.

Egun hartan hirurak arropa eta zapata berriak eroatera joan ziren. Oso ondo pasatzen ari ziren eta elkar hobeto ezagutzen hasi ziren, pixkanaka. Galdu zituzten urte horiek berreskuratzen saiatu ziren.

Nerearen gurasoak egunero Donostiako jangelara joaten ziren laguntzera eta, gainera, jangelara joaten ziren pertsonetako batzuk beren lagunak ziren.

Azkenean, denak batera bizi ziren poz-pozik eta Nereak jangela gehiago ireki zituen Euskal Herrian.

Elene Arruti



Gorka Lertxundi

I Think He's Gay!

2013ko ekainaren 16a zen, ostirala, Naroaren urtebetetzea baino bi egun lehenago. Naroa Zarauzko ikastolan zebilen 13 urteko neska gazte bat zen, Jon izeneko mutil batez maiteminduta zegoena. Jon 13 urteko mutil guapo bat zen, bide onena zein zen ikasten ari zena.

Ni narratzailea naiz, zeruko aingeru bat, dena ikusten duena.

Ordura arte Naroak ikasgelako mutil guztiak erraz bereganatzen zituen. Baina, egun batean, Ikastolan inor konturatu gabe, Naroak Joni ea berarekin irten nahi zuen galde-tu zion, haren estutxean orri bat sartuz.

Jonek, ordea, ezetz esan zion Naroari. Ez zuela oso gustuko gai horietan sartzea eta ez zuela horrelakorik nahi.

Naroa oso zatar geratu zen, nahiko pikatuta. Ordura arte inork ez baitzion horrelakorik esan, baina ez zuen etsi. Hurrengo egunean, hau da, ekainaren 17an, bero hadia egiten zuen. Naroa eta lagunak *short*-ak jantzita atera ziren kalera (galtza *sexy* horiek, izter guztia erakusten dutenak). Larunbat arratsalde hartan neskak eta mutilak batera geratu ziren. Ordurako bazeuden hainbat bikote.

Naroa Jonekin ligatzen saiatu zen, baina ez zuen ezer lortu.


Naroaren urtebetetzean —hau da, igandean— Jonek bazekienez Naroak gustuko zuela, pozteko, lore batzuk erosi zituen, eta berari erregalatu zizkion. Naroa asko hunkitu zen, eta pentsatu zuen Jon maiteminduta zegoela.

Naroak, bigarren aldiz, irteteko eskatu zion. Jonek, orduan, garrantzitsuago sentitzeagatik, baietz esan zion eta hurrengo astebururako geratu ziren.

Ni neu, narratzailea, esan dizuedan bezala, aingeru bat naiz, eta Lurrera jaitsi nintzen, Joni zetozen arriskuez ohartarazteko asmoarekin. Gauean Jonen gelan sartu nintzen eta esan nion garrantzitsuago sentitzeagatik ez zirela horrelako gauzak egin behar. Ondoren, handiarena egiteagatik, edaten hasiko zen eta, deskuidatzen bazen, denetik erretzen; hau da, droga-munduan sartzen.

Jonek hau dena ondo asimilatu ondoren, bi aldiz pentsatu gabe, Naroari ezetz esan zion. Ez zela egokia adin horrekin horrela hastea; oraindik ume-moko batzuk zirela esan zion.

Naroak pentsatu zuen Jon nahiko arraroa zela, eta susmo txarrak hartzen hasi zen. Naroak, Jon homosexuala zela pentsatu zuen, eta lagun artean hori zabaldu zuen. Egun batzuetara, Joni ea egia zen galdetu zioten lagunek; berak ezetz esan zien, gezurra zela.



Jonek galdetu zien ea zeinek asmatu zuen horrelako txorakeria. Pixkanaka, sokatik tiraka hasi zen, eta pastel guztiaz ohartu zen. Naroari azalpen bat eskatu zion.

Naroak, harro-harro eginda, kasurik ez zion egin.

Horrelaxe jarraitu zuen bere bizitza Naroak, harro-harro eginda.


Urteen poderioz, Naroa droga-munduan murgildu da, eta hortik irten ezinik dabil. Bestalde, Jon unibertsitatean dago: lehenik, arkitektura ikasi zuen, eta oraintxe, hemen goitik ikusten dudana bezala, hirigintzako masterra ikasten ari da; bueno ikasten edo... ondoan duen Joane izeneko neskekin tonteatzen.

Orain Jonek badu horrela hasteko adina, eta horretarako behar den ardura ere badu. Edan bai; baina, betiere, edaten ari dena zer den jakinda. 18 urte ditu, karneta atera berri du, eta astebururo festan ibiltzen da, bere lagunekin.

Joana gustuko du, eta Joanak bera. Bide horretatik jarraituz, ez zaio batere gaizki joango.

Gaur egungo gazte asko gaizki doaz,
ez hartu bide hori ez baita
batere ona!

Borja Esnal



Naia Garro


Uda noiz?

Hemen nago pentsatzen
zer idatziko dudan,
beti literatur lehiaketan
saiatzen naiz parte-hartzen.

Konturatzeko gaude maiatzean
datorren hilerako zerbait betetzen,
zerura begiratu, eta ez du hala ematen:
gehiago dirudi sanpedrotan baino
sanikolasetan gaudela.

Ama engainatu nuen
galtza motzak erosteko
eta orain armairuan gorderik
daude amorrarazten.
Goizero galdetzen diot
ea noiz jantziko ditudan,
eta berak erantzuten dit:
martxa honetan,
Orioko traineruak
Kontxako bandera
ekartzen duenean.

Rut Atxega



Olatz Genova

Berandu da

Ohean egon zuri karta hau idazten,
malkoek papera bustiz,
zer esanik ez edukitzea
milaka hitz esateko gogorekin,
honelaxe sentitzen naiz, bai,
triste nago,
badakit nire errua izan dela guztia;
ez nuen inoiz pentsatuko
hau guztia gertatu ahal izango zenik.
Badakit pasatzera heldu naizela,
nire izaera maltzur eta gaiztoarekin;
baina barkaidazu, ama,
ez da hau nik nahi nuena.
Badakit gaizki egin dudala,
baina barkamena eskatu nahiko nizuke,
nahiz eta zuk orain ez erantzun,
prest nago edozertarako,
zuregatik bada, bai behintzat,
baina bakarrik zurekin egotea
eskatuko nioke edonori,
hori egia bihurtu zezakeen edonori,
ni zurekin egotea, biok bakarrik,
hori izango litzateke nire ametsa.
Nahiz eta berandu izan,
hauxe esan nahi dizut:
Mila esker niregatik egindako guztiagatik,
beti egongo zarelako nirekin,
nire bihotzean,
nire pentsamenduetan...
Karta hau irakurriko ez duzula jakin arren,
gogoan zaitut oraindik,
hori ez ezazu inoiz ahaztu,
nire haurtzaroan biok igarotako momentuak,
gaueko muxuak, zure laztanak...
Bukatzeke, mezu hau zuregana heltzea nahi nuke,
inoiz entzun ez duzuna nire ahotik:
Asko maite zaitut, ama!

Ane Colado



Mireia Mujika

Hondar ekaitza

Orain dela hirurogei bat urteko udaberri beroa izan zen hura, nire familiak bizitako beroena. Hemezortzi urte inguruko gazte bat nintzen, ile luze eta beltzaranekoa, nire begi irten eta handien kolore berdinekoa. Kaled izeneko anaia bikia, aita, eta ahizpa ziren nire konpainia bakarra; zoritxarrez, ama hilda zegoelako. Coalbrooken bizi ginen, Afrika hegoaldeko herrialde behartsu eta ezjakin batean. Denbora askoan zehar ez zuen euririk egin han eta, beraz, ez genuen urik eta ezta elikagairik bizirauteko, lehorteak soroak suntsitu baitzituen. Kaled eta ni, guztiz ezberdinak ginen nahiz eta bikiak izan, eguna eta gaua. Bera beti lehenengoa zen guztian; ondorioz, ez zegoen egunik zoritxarreko eta bakarti sentitzen ez nintzenik. Gauero, lur lehorrean etzan ohi nintzen, izarrei begira, nire ama ondoan edukita zenbaterainoko aldaketa egongo litzatekeen pentsatuz. Urteko egunik laburrenean jaio ginen, baina noski, Kaled lehenengo eta ni ondoren, eta handik urte batzuetara, gure ahizpa jaio zen, Nur. Hirugarren erditzean hil zen ama, horregatik, nire gorrotoa egunak pasa heinean handiagoa egiten zen ahizparekiko, nahiz eta anaiak hau gelditu nahi izan.

Horietako egun batean, Kaled eta ni, gure herrialdeko aintzirara joan ginen. Asko ibili behar izan genuen, izan ere, lakua hutsik geratzen ari zen, baina, iritsi bezain laster, haize zakarra zorabiatzen hasi zitzaigun, beraz, gure begiak, urrutiko leku baterantz gidatu genituen. Hantxe zegoen, gure bizitza guztiz aldatuko zuen ekaitza, hodei laranja baten kolorekoa: hondar ekaitz bat. Zeruertzetik hurbiltzen ari zen, norbaitek bidalitakoa izango balitz bezala, gure herrialdea suntsitzeko. Ziztu bizian aldendu ginen aintziratik, etxera joatea erabaki genuen, familiari ohartarazi, eta, sotoan ezkutatzeko. Bat-batean, aita agertu zen, egun hura itxaroten ari balitz bezala, gertatuko zela jakinez. Denak sotoan sartu ziren, Kaled eta ni ezik. Bitarte horretan, gorputz guztiak min egiten zidan, ekaitzak gorantz eta beherantz eramaten ninduen, beraz, ezaguera galtzea izan zen etxera ez sartzeagatik ordaindu nuen prezioa. Anaiaren oihuak ere entzuten nituen. Hodei laranja joaten ari zela ematen zuen, baina, ez nengoen ziur. Segundo batzuetara, norbaiten eskuak sentitu nituen, nire gorputza gorantz bultzatzen, satora eramateko. Ezaguera berreskuratzean, kanpora irtetea erabaki genuen; ingurua gorri-ka zegoen, suntsituta, ez genuen irtenbiderik. Ekaitza begiratzen geratu ginen, hura bistatik galdu arte, baina, arreta kendu genionean, itzal batzuk gureganantz hurbiltzen hasi ziren. Hiru zaldizkoren itzalak ziren, beltzez jantzitako hiru zaldizko eta lotuta zeramat-en gizon batenak. Denbora gutxian, gure aurrean zeuden.

—Hau al da? —zuzendu zitzaion gidari bat gizonari.

—Bai, argi daukat, hau da mutila.

—Zenbat urte dituzu, mutil? —galdetu zion zaldizkoak Kaledi.

—Hemezortzi. Zergatik?

—Esan dizuet hau dela, aipatutako egunetik egon naiz bere eguneroko jardueraz arduratzen. Orain, ba al daukat joatea? —galdetu zuen gizonak zaldizkoei begiratzuz.

Haietako batek baietz esan zion buruarekin, baina, urrun zegoenean, gezi batez hil zuen. Bitartean, beste gidari batek soka bat lotu zion anaiari, eta, hura saihesteko ahalegina egin arren, ez nuen ezer lortu. Urruntzen ari zen bitartean, aita, lasterka atera zen atzetik, Kaled berreskuratzeko itxaropenarekin. Orduan, zaldizko bat aitaren presentziaz ohartu zen, eta, zalantzarik gabe, gezi-arkua atera, eta gezi bat jaurtiz, bihotza zeharkatu zion. Bertan hil zen, ezin izan nuen hori jasan, eta, bi aldiz pentsatu gabe, nire gezi-arkua atera, eta geziak jaurtitzen hasi nintzaion zaldizko madarikatu hari. Beranduegi zen; zoritxarrez ez nuen asmatu, jada Kaled oso urrun baitzegoen, etxetik urrun, nire bizitzatik ateratzeko zorian.

Denbora batean hausnartu ondoren, Kaleden bila joatea erabaki nuen; baina, horretarako, azkarrak izan behar genuen, haize zakar bortitzak ez baitzuen asko iraungo zaldizko beldurgarri horien aztarnak estaltzen. Orduan, Nur etxera eraman, eta elkarriketa gogor bat izan nuen berarekin. Hura izan zen nire benetako bizitzari ateak zabaltzeko zizkion esperientzia. Hurrengo egunean, botak jantzi, egun batzuetan kontsumorako behar genituen objektuak hartu, eta bidaiari ekin genion. Zaldizkoek utzitako arrastoak jarraitzen saiatu ginen, ahalik eta azkarren iristeko asmoarekin; baina, halako batean, aztarnak desagertu egin ziren. Basamortu bat genuen gure aurpegi aurrean; berehala sartu ginen lurralde arriskutsu hartan, beldurrik gabe, Kaled aurkitzeko gogo ikaragarriak basamortua zeharkatzeko indarra emango zigula pentsatuz.

Amaierarik gabeko basamortu bakarti eta lehorretik egun batzuk ibili ondoren, ez genuen ez urik ezta elikagairik, etsita geunden, baina orduan, belaontzi bat ikusi genuen, arean nabiga zezakeen belaontzi bat. Aho zabalik geratu ginen, eta hara hurbiltzea pentsatu genuen, laguntza eskatzera. Hurbiltzen ari ginen heinean, belaontzia handiagoa iruditzen zitzaigun, harrigarria zen. Iritsi ginenean, jabeekin hitz egin genuen. Haiek oso jator agertu ziren, eta bazkaltzera gonbidatu gintuzten. Senarra, urduri zegoen, andrea ez bezala. Zerbait susmatzen hasia nintzen, baina, ez nion garrantzirik eman, oso zintzoak baitziren. Bazkaldu ondoren, begiak ixten zitzaizkidan, ez nuen indarrik gorputza mugitzeko, Nur bezala, beraz, lurrera erori ginen. Gorputza mugitu ezinak ezintasuna ekartzen zidan, mugitzeko gogo, kateak apurtzeko beharra; baina, zoritxarrez, ezin nuen. Bazkaldutakoaren eragina pasatzean, kaiola moduko batean esnatu nintzen, bakarrik, Nur gabe. Leku hura iluna zen, zikina; horregatik, beldurtuta nengoen, baina ez zen hori izan beldurra eragin zidana, ez hori bakarrik. Oihuak eta negarrak entzun nituen kanpoan, ondorioz, hormaren goialdean zegoen leihotik begiratzea bururatu zitzaidan. Biztanle guztiek gustuko zuten ikusi nuena: apustuak egiten zituzten, errugabeak iraindu, jo, barre egin... Ez nuen denbora gehiago izan, soldadu batek nire atea ireki baitzuen, eta kanpora ateratzera behartu ninduen. Bertan nengoen, kaiolatik ikusi nuen plataforma beldurgarri hartan. Beste pertsona bat nirekin sartu zen, eta norbaitek, atea itxi zuen. Ez nekien zer egin, galduta nengoen, beldurra nire gorputzaren jabe bihurtu zen, hanketatik burura iristen, eta bitarte horretan, neska handi

bat niri begira zegoen, zerbait itxaroten ariko balitz bezala. Ingurua arakatu nuen begien bidez, laguntza bila, denak barre egiten zidaten, eta, apostuak egiten hasiak ziren jada. Bertan ikusi nituen belaontziko jabeak, leiho batetik begira, Nurrekin. Bat-batean, bero ikaragarria sentitu nuen, bero gorri moduko bat, beldurra nire gorputzetik kanporatu, eta ausardia bihurtu zuena. Segundo bat itxaron gabe, neskarengana joatea erabaki nuen, hark bere bizitza jokoan egongo balitz bezala jotzen ninduen, amorru biziarekin, eta, batez ere, bizitzeko gogo sakonarekin. Orduan, bero gorria handiagoa egiten ari zen, beraz, nik ere, gauza bera egin nuen. Irabazle atera nintzen; baina, neska errugabe hura lurrean ikusi nuenean, beroa desagertu, eta, berriro ere, beldurra nire gorputzaren jabe egin zen. Neska hark nik bezala sentitzen zuela iruditu zitzaidan, baina, ezin nuen ezer egin Kaleden konpainia berreskuratu nahi banuen. Nur zegoen lekurantz begiratzean, barre egin zidan, baina banekien berak ere ez zuela beste neska burutik kentzen. Jendeak egindako pasillo batetik pasatzen hasia zen nik begiratu nuen nerako. Orduan, leihotik ikusi nituen beste galtzaileei egindako gauza bera egin zioten: hau da, errespeturik gabeko ekintzekin min egin ondoren, hil.

Egunak pasatzen ari ziren, eta, artean ez zidan inork garaitu; baina, ez nuen Nurri buruzko berririk; ondorioz, larrituta nengoen.

Gau batean, neska berri bat etorri zen, eta nirekin sartu zuten kaiolan. Kontu ugari esan genizkion elkarri. Horien artean, Kaleden bahiketa aipatu nuen. Kasualitatez, anaia non zegoen bazekien, erregeak bahitu zuela esan zidan. Burutik jota omen zegoen droga baten ondorioz, eta, errege izaten jarraitzeko, urteko egunik laburrenean jaiotako eta hemezortzi urte zituen pertsona bat hil behar zuela pentsatzen zuen udako solstizioaren hasierako egunetan.

Gau hori, guztietatik okerreana izan zen: udako solstizioaren hasierarako aste bat gelditzen zenez, garaiz ez nintzela iritsiko pentsatzen nuen.

Hurrengo goizean, herritik zehar eraman ninduten, eta neska batekin hitz egiteko aukera izan nuen. Plan bat omen zuen niri kaiola borroketatik ateratzen laguntzeko; baina, ez zitzaidan fidagarria iruditu, ez bainuen ezagutzen; baina, ez zegoen beste irtenbiderik, Kaled garaiz berreskuratu nahi banuen, plana jarraitzea izango zen bide egokiena. Eguna iristeko falta zen denbora doitasunarekin zenbatzen nuen, baina, bitartean, borrokak ez galtzeaz arduratzen nintzen. Halako batean, Kai izeneko mutil batekin borrokatu nuen. Lasai zegoela zirudien, bere irribarre bitxiak erakusten zuen bezala; baina, eskola bat zeramala zirudien, bere ilargi koloreko begiek ez baitzidaten uzten sentitzen zuena ikusten.

Egunak joan egunak etorri, niri begira ikusten nuen. Ez nintzen hurbiltzen, ez nuelako nahi nire ahuleziak ezagutzea, baina, egia esanda, desiratzen nengoen dena bukatu eta berarekin hitz egiteko aukera edukitzeko. Eguna iritsi zen, Arleen izeneko neska bat nirekin sartu zen kaiolan, eta hiru aldiz irabazten utzi nion. Ikusleei, susmagarria iruditu zitzaien hiru aldiz galtzea, horregatik, biztanleek egiten zuten pasilloa tokiz aldatu zuten. Ezin nuen sinetsi, plana galtzeaz zegoen. Galdera ugari pasa zitzaizkidan burutik,

haien artean Nur eta Kaleden etorkizunari buruzkoak, eta beste zenbait nireari buruzkoak, baina banekien zerbait hauen inguruan, beren etorkizunaren barruan egongo nintzen. Horregatik, korrika bizian hasi nintzen, kaiolara igo, eta hormarantz salto egin nuen. Hori egin ondoren, kalean aurkitutako neska, Sira, niregana etorri zen eta planaren bigarren zatiari ekin genion elkarrekin, beraiei mesede egiten zien zatia. Preso guztiei, ateak ireki genizkien, eta, ondoren, pabiloiak erre genituen, bidegabekeria hura berriro errepika ez zedin. Baina Kai bilatzen ez nuela ikustean, mutilen pabiloira sartu nintzen, bertan ote zegoen ikustera. Oihuak entzuten nituen, baina herritar beldurtue-nak zirela pentsatuz, ez nien kasurik egin. Jarraian, kolpeak sentitu nituen nire hanke-tan, Kai, metalezko zulo batean sartuta zegoen, hiltzeko zorian. Ez nuen segundo bat itxaron, atea irekitzeko; baina, egia esanda, ez nekien zergatik arriskatu nuen nire bizi-tza berarena salbatze arren, ez nuen-eta ezagutzen. Kanpora irten bezain laster, etxe batean sartu ginen. Arropak aldatu genituen, inork ez ezagutzeko; ez jakiteko bo-rrokalariak ginela. Ondoren, Sira eta bere taldearengana hurbildu ginen. Kaiek orde-a, ezin zuen bidea gurekin jarraitu, eta, ondoren aurkituko ginela esan ondoren, musu bat eman zidan ezpainenetan, agur esateko asmoarekin. Hitzik esan gabe, zaldira igo, eta taldearekin, kanpamendurantz abiatu nintzen. Iristerakoan, Sirarekin ibilaldi bat egin nuen, gertatutakoa momentu batez ahazteko. Bitartean, ahots grabe bat entzun genuen atzean. Bi aldiz pentsatu gabe, ihes egiten hasi ginen, bahitzaileak edota beltzezko zal-dunak zirela pentsatuz; baina ahots hura ezaguna egin zitzaidan, Kai zen gure atzean zegoena, horregatik, atzera itzuli nintzen.

—Baina, zertan ari zara hemen? —galdetu nion, harriturik.

—Zure anaiari gertatutakoaz ohartu naiz, eta laguntzera nator.

Hori esan ondoren, pentsakor utzi ninduen, zer egin ez nekielarik. Gauean berarekin hitz egin nahi izan nuen. Umore txarrez jartzen zidan guztiaz hitz egin nion, eta, bera, ni kontsolatzeaz arduratu zen. Ez nekien zergatik egin nuen hori, ez bainuen ezagutzen, baina, niregatik egin zuen guztia kontuan hartuta, gidari egokia iruditu zitzaidan nire ondoan bidaiatzeko, mendi haiek oso ondo ezagutzen baitzituen. Hurrengo goizean, nire ondoan zegoen, begiak irekita, niri begira, baina ez nion ga-rrantzirik eman, eta egin behar genuen bidaia antolatzeaz arduratu nintzen. Nur agurtzera joan bezain laster, gurekin bidaiatzeko aukera izaten saiatu zen, behin eta berriz errepikatzen zuen gauza bera: *Kaled nire anaia ere bada, horregatik, zuekin joateko eskubidea dut*. Egia esanda, arrazoi zuen, baina, ez nuen nahi Nurri ezer pasatzea, azke-naldian, berarengana nuen gorrotoa desagertzen ari baitzen, eta, nahiago nuen seguru mantentzea. Guztiak agurtu genituen, baina Sirak aurpegi tristearekin begiratzen zidan, berriz ere ikusi behar ez banindu bezala, Kai ez baitzitzaion fidagarria iruditzen.

Zaldi gainera igo, eta bidaiari ekin genion elkarrekin. Lehenengo egunean mendi beltzetan zehar bidaiatu genuen, gelditu gabe. Beldurgarriak ziren, handiak, otsoen oihuak entzun ohi ziren noizbehinka eta, haien ondorioz, animalia askok ihes egiten zuten; baina, zorionez, nahiko azkar gindoazen zaldiekin, erritmo egokian, otsoen

eskuetan erortzeko aukera gutxirekin. Gaua iristear zegoen, eta ez genuen ez elikagairik eta ez deskantsatzeko tokirik; ondorioz, mendira igo behar izan genuen gure premiak asetzeko. Goian geundenean, zuloz betetako soro luze eta pitzatu moduko batetik pasatzen hasi ginen; baina, bat-batean, lurra dardarka hasi zen. Zuloak itxi eta ireki egiten ziren lurralde bakarti hartan, zerbait atera beharko balitz bezala. Ez nekien zer egin, ez nituen ezagutzen inguru haiek; baina, Kairi oso ezagunak egiten zitzaizkiola iruditu zitzaidan. Aurpegi zurbilarekin begiratu zidan, galduta egongo bagina bezala. Orduan, har batzuk lur azpitik ateratzen hasi ziren, har erraldoiak. Argi nuen: lurralde haiek oso arriskutsuak ziren. Bizkarrak elkartu genituen, eta, geziez, harrak hiltzen saiatu ginen. Dena konponduta zegoela zirudienean, har handiena agertu zen. Ezin izan genuen menderatu eta, horregatik, ihes egitea izan zen bizirauteko modu bakarra. Bidean, harra atzetik genuen, eta presaren presaz, lurrera erori nintzen. Har beldurgarri hark harrapatu ninduen eta, kolpearen ondorioz, ezin izan nuen ezer egin. Kai nire bila etorri zen, salbatu ninduen eta kobazulo batera eramanez ninduen, zauria sendatzeko asmoarekin. Denbora batean ezin izan genuen aurrera egin, nire zauriarengatik, eta berarekin nuen erlazioa sendotzen hasi zen.

Egun bakarraren faltan, zalditik jaitsi ginen zerbait jateko, oso ahul baikeunden, eta, baso ilunera sartu ginenean, Kairi zerbait esan nahi izan nion.

—Kai, oraindik ez dizkizut eskerrak eman egindako guztiagatik, ez zenuen egin beharrik, eta...

—Bai?

—Agian ez dut izango beste aukerarik niregatik egindako guztia eskertzeko: Kaled aurkitzen lagundu, nire zauria sendatu...

—Ez jarraitu eskerrak ematen. Ez naiz heroi bat, ez ditut merezi.

—Kai, itxaron.

—Eta orain zer?

—Esan nahi dizut, ez dakidala zer gertatuko den orain, zer gertatuko den dena bukatzean eta...

Aurpegia heldu eta musu eman nion ezpainenetan. Elkarri begiratzen geratu ginen; mundua haize gabe geratzen ari zen, bihotz taupadak ziztu bizian sentitzen nituen. Orduan, musu eman zidan, denbora asko itxaron balu bezala; baina, berak esan bezala, ez zen momentua, Kaled arriskuan zegoen. Horregatik, gelditzea izan zen onena, ez zegoen beste erremediorik, eta, aurpegian irribarre handi batekin jarraitu genuen bidea.

Iritsi zen gaua, gure etorkizuna erabakiko zen gaua. Prismetiko batzuez, erregearen zeremonia begiztatu genuen, baina Kaled ez zegoen han. Alde batetik, zuhaitz bitxi batzuk ikusten nituen; droga sortzen zuten zuhaitzak izango zirela pentsatzen nuen.

Baina, beste aldetik, etxe txiki bat ikusten nuen; Kaled han zegoela zirudien, baina, haren inguruan, jantzi beltzeko zaldizkoak zeuden. Orduan, plan bat bururatu zitzaidan.

Zuhaitzen artean ezkutaturik, etxe txikira iritsi ginen. Gero, zaldizkoak entretenituta ikusi genituen, ateak irekitzeko aukera izan genuen, baina Kaled ez zegoen han. Erregeak bere eskuetan zuen. Iritsi berria zen; ez ginen konturatu bertan zuenik. Horregatik, gidariei jantzi beltzak lapurtu genizkien, zeremonian parte hartzeko asmoz. Hurbiltzen hasiak ginen, Kaiek zuzi bat hartu zuenean. Erregeari bota zion, eta, Kaled bizkarrean hartuta zuelarik, ihes egin genuen. Zaldiak prestatuta zeudenez, urrutira joan ginen, beltzeko gidari batzuk aurretik eramanez, baina burutik jota zeuden pertsona haiengandik urrun.

Baso handian sartu ginen, dena bukatu zela pentsatuz. Hirurak elkarrekin geunden gau hartan, suaren inguruan, gertatutakoaz hitz egiten eta elkarrekin barre egiten; baina, zoritxarrez, ez zen hura izan gure abenturaren amaiera.

Zaldiak entzun genituen. Errege kankailu hura zen; baina orduan ez zuen nahi Kaled bereganatu, ni baizik. Erregeaz arduratzen nintzen bitartean, Kai eta Kaled zaldizkoekin borrokatu zuten. Ez zidan erraz jarri; baina, guztiarekin bukatzera nindoanean, Nur aurrean jarri zidan. Galdera ugari nituen buruan, baina, ezin izan nituen argitu. Akordio bat proposatu zidan eta nik amore eman nuen. Guztia galtzera nindoan; baina, bat-batean, erregea lurrera erori zen hilda. Etzanda zegoelarik, Sira eta bere taldeko kideak ikusi nituen. Izututa nengoen, zer egin ez nekiela.

—Baina, zertan ari zarete hemen? —galdetu nien.

—Zuei laguntzera etorri gara. Arazoak edukiko zenituztela pentsatu dugu.

—Momentu egokienean iritsi zarete. Ez dakit nola eskertu.

—Ez da ezer, mesede bat beste baten truke.

Nur niregana hurbildu zen, besarkada gogotsu bat eman zidan eta, denak batera, Kaled eta Kaien bila joan ginen. Kaled ikusi orduko, denak gainera bota ginen, baina ez zegoen Kaien arrastorik. Urrutira begiratu nuen, zaldi baten soinua entzuten baitzen. Han zegoen, gutaz urruntzen. Ez nuen hura jasan nahi eta, beraz, zaldira igo eta ziztu bizian atera nintzen. Nire zaldiaren soinua entzun zuenean, gelditu eta ni iritsi arte itxarotea erabaki zuen.

—Zer ari zara egiten? Nora zoaz? —galdetu nion.

—Oraindik gauza batzuk ditut egiteko. Horiek konpondu behar ditut zurekin egon baino lehen.

—Baina, nola dakizu non egongo naizen? Ez dizut ezer esan.

—Ez al duzue erreka zaharrean dagoen etxera joan behar?

—Zeinek esan dizu?

—Bidaia hasi aurretik Nurrekin hitz egiten entzun nizun. Zerbait gehiago?

—Bai, jaitsi zalditik.

—Ondo dago.

Ezer gehiago esan gabe, azken musua eman nion, berriz ikusi arteko azken musua, eta, hori egin ondoren, begiradaren bidez agur esan genion elkarri.

Ainhua Grijalba

Nottinghameko asasinatzea

Abenduko arrats ilun eta hotz bat zen Nottinghameko hirian. Han zegoen Wells jauna bere bulegoan; Ingalaterra osoko detektibe onena zen. Wells jaunak 60 bat urte zituen jadanik, baina berarentzat urteak pasako ez balira bezala zen, gazte-gazte baitzegoen. Ile zuria zuen eta, betaurreko batzuen atzean, begi berde eder eta bizi batzuk ikusten zitzaizkion; aurpegia bizarrez bete zuen. Oso pertsona ona zen Wells jauna, behar zuenari laguntzeko prest zegoen momentu oro, baina gaizkileekin ez zuen errukirik.

Bat-batean bulegoko telefonoak jo zuen. Emakume bat zen eta Buckinghameko parkean gorpu bat bilatu zuela zioen. Wells jauna parkera joan zen eta han zegoen gorpua, parkeko izkina batean, lohiez zikindua. Han zegoen deia egin zuen emakumea ere, aurpegi zurbilarekin.

—Eskerrik asko abisatzeagatik, baina joan zaitez etxera, hau ikustea ez da-eta oso gauza atsegina —esan zuen detektibeak.

—Ongi da! Etxera joango naiz, baina jakin ezazu ez dudala zer ikusirik emakume honen hilketarekin eta ez dakidala nor den. Baina, hala ere, norbaiten laguntza behar baduzu, laguntzeko prest egongo naiz, nahiz eta ez dakidan nola lagunduko dion ni bezalako emakume batek zu bezalako detektibe on bati.

—Lasai, gorpua aurkitzeagatik ez duzu zertan hilketarekin zerikusia eduki. Zerbait behar badut, deituko dizut. Beno, agur! —agurtu zuen Wellsek

Gorpua aztertzen hasi zen Wells eta jakin zuen lepoa estututa hil zutela. Parkeko izkina hori lohiez bete zegoen eta, ondoan, hanka marka arraro batzuk. Hanka markei argazkia atera zien, euriarekin hanka markak borraratu baino lehen. Gorpua bere bule-



Ibai Tamayo

gora eraman zuen, hobeto aztertze. Emakumeak 30 urte inguru zituen, oso ederra zen eta, zirudenez, dirua ez zitzaion falta, oso arropa garestiak zeramatzalako. Berokiaren poltsikoan mugikor bat zeukan. Wellsek deiak begiratu zituen, susmagarriak bilatzen hasteko, eta ikusi zuen Andy White izeneko mutil baten dei asko zituela azkenaldian. Beste emakume baten mezu bat zuen: abenduaren 16koa zen eta esaten zuen bost egunetara bere etxera joateko. Bi egun falta ziren eta neska horretaz Wellsek jakin zuen Amanda Puckinbell izena zuela eta parketik bi kaletara bizi zela. Ez zeukanez egiteko ezer, hanka marka horiek aztertzen hasi zen. Kiroleko zapatila batzuk edo bota batzuk ziruditen; takoizko zapatak behintzat ez ziren. Gutxi gorabehera 39, 40, 41 taila zuen hiltzaileak. Gorpua ere gehiago aztertuz, jakin zuen abenduaren 17an hil zutela, mezua jaso eta egun batera.

Abenduaren 21a iritsi zen, Amandaren etxera joan behar zuen eguna. Haren etxera joan zen; oso etxe ederra zen, hiru pisutakoa. Txirrina jo zuen eta neska gazte batek ireki zion etxea eta harriturik geratu zen.

—Kaixo, nor zara? —galdetu zuen Amandak

—Wells detektibea naiz.

—Eta zer egiten duzu hemen?

—Joan al gaitezke barrura? Han lasaiago hitz egingo dugu.

—Ongi, goazen barrura —sartzera gonbidatu zuen Amandak

Barruan zeudela, Wellsek mezuarena kontatu zion eta baita hildako neskarena. Jakin zuen hildako neska Amandaren ahizpa zela, Lily Puckinbell. Amandak esan zion Andy Whitekin ezkontzekoa zela. Amanda oso triste zegoen, negarrari ezin eutsi, eta mesedez eskatu zion Wells detektibeari zerbait jakin orduko jakinaren gainean jartzeko. Wellsek esan zion mesedez bere zapata guztiak erakusteko, eta ez zion trabarik jarri. Amandaren gelara igo ziren, eta zituen zapata guztiak takoidunak ziren. Berriz ere egongelara jaitsi ziren eta hitz egiten pasa zuten denbora.

—Eskerrik asko. Oso laguntza handikoa izan da bisita hau niretzat, hainbat gauza argitu dizkidazu. Baina joateko ordua dela iruditzen zait.

—Ez da ezer izan. Zerbait behar baduzu, badakizu non bizi naizen. Beno, ateraino lagunduko dizut eta espero dut nire ahizpa hil zuen inozo horrek kartzelan bukatzea!
—esan zuen Amandak haserre itxurarekin

—Saiatuko naiz hiltzailea ahal dudan azkarren aurkitzen! —agur esan eta etxera joan zen Wells doktorea.

Wells etxean pentsatzen egon zen: Amanda hiltzailea ez zela argitu zuen. Lotara joan zen, nahikoa eduki zuen egun baterako. Hurrengo egunean Lilyren ezkongaiari bisitatxo bat egitea pentsatu zuen. Itxura batean, Andyk, Lilyren ezkongaiak, ez zekien

ezer; oso harriturik eta triste geratu zen entzun beharrekoa entzundakoan. Bere zapatak ikusi zituen eta konturatu zen bere hankako taila 40a zela, eta bere zapatalekuan kiroleko zapatillak eta botak ere bazeuden zapata dotoreen artean. Horregatik, bera izan zitekeen hiltzailea. Hitz egin zuten eta jakin zuen Lily bere lagunik onenatariko batekin geratu zela 17an, hil zen egunean. Mutil bat zen, bere adinekoa, unibertsitatean batera ikasten ibilitakoak omen ziren. Ethan Anderson izena zuela ere esan zion.

Etxera joan ondoren, telefono listinean begiratu zuen eta bere telefono zenbakia ageri zen: 658417662, baita non bizi zen ere, eta parketik oso urrun bizi zen: parkea hiriaren alde batean zegoen eta bere etxea bestean. Ethanen etxera joan zen. Etxe guztia izarren eta planeten pegatinaz bete zegoen. Hitz egiten egon ondoren, bere zapatak erakustea eskatu zion. Zapaten artean bazeuden kiroleko hainbat zapatilla eta baita bota batzuk, astronauta bota batzuk ziruditen eta hanketako taila 39a zuela ikusi zuen. Hitz egiten aritu ziren eta Ethanek kontatu zion astronauta zela eta horregatik zeukala etxea horrela apainduta. Botak berriro ikustera igo zen Wells eta zolei argazkia atera zien, etxean lohiko markarekin konparatzeko. Etxera joan aurretik Andyren etxetik pasa zen, zapaten zolei argazkiak ateratzeko.

Argazki guztiak zituela, bulegora joan zen eta han argazkiak konparatu zituen. Lohiko hanka markaren antzekoena Ethanen botena zen, baina Andyren kiroleko zapatila batzuen antza ere bazuten, hankako taila ere bat zetorren. Gorpua gehiago aztertu zuen eta eztarrian lepoko bat bilatu zion, lepokoak izar baten formako bitxi bat zuen eta orduantxe jakin zuen zein izan zen hiltzailea: Ethan!

Dena bat zetorren: lepokoa eta hanka marka, gainera lepoa estutuz hil zuten eta Etham indartsua zen, kirol asko egiten baitzuen. Baina ez zekien zergatik egin zuen. Zergatik hil zure lagunik onenatarikoa? Ez zuen hori argitzeko modurik, modu bakarra Ethani galdetzea zen. Halaxe egin zuen, lepokoa garbitu eta hanka marken argazkia hartu orduko, etxetik irten eta metroa hartu zuen, Ethan Andersonen etxerantz joateko asmotan. Behin haren etxean zegoela, Ethanek egongelara gonbidatu zuen eta han esan zion detektibeak:

—Dagoeneko badakit, ez duzu zertan gezurrik esan...

—Emm... zeergatiik dioozuu hoorii? —galdetu zuen Ethanek beldurturik

—Ez jarraitu horrekin, mesedez. Badakit zuk hil zenuela Lily, badakit lepoa estutu zeniola; badakit, hil ondoren, izar bat duen lepokoa sartu zeniola eztarrian; badakit astronauta botak zenituela soinean... badakit —baieztatu zuen Wellsek

—Bai, egia da...

—Baina, zergatik? Esadazu egia, mesedez, ez duzu ezer gehiago galduko.

—Nik txikitatik maite izan dut Lily, 16 urte nituenetik, baina ez nintzen ausartzen ezer esatera, beldurra neukan, gure erlazioa amaitzeko beldurra... Egun hartan geratu

ginen, Buckinghameko parkean, sentitzen nuen guztia esateko adina indar hartuta joan nintzen. Nik hori esan ondoren, esan zidan Andyrekin ezkontzekoa zela eta nik ez nekien noiztik ezagutzen zuten elkar, bi urte kanpoan pasa nituelako. Hori entzun ondoren, hain zen handia nire amorrua, lepotik gogor heldu eta estutu niola. Egin nuena egin ondoren, damutu egin nintzen eta orduan nire izarraren lepokoa eztarrian sartu nion. Bota horiek jantzi nituen suertea ematen didatelako; bota horiek jantzita nituela ezagutu nuen Lily eta, egun horretatik aurrera, berarekin egon behar nuen guztietan janzten nituen; ez nituen beste ezertarako erabiltzen, berarekin egoteko soilik.

—Beno, jakingo duzu epaiketa bat egongo dela, eta kartzelara joan beharko duzula...


—Bai, badakit...—esan zuen Ethanek

—Beno, orain nirekin etorriko zara poliziarengana —esan eta, besotik heldu ondoren, etxetik atera zen.

—Joan beharko... —esan zuen mutilak

Ethan poliziarengana eraman ondoren, Amandari deitu zion eta dena azaldu. Amandak arretaz entzun zion eta eskerrak eman zizkion bere ahizparen hiltzailea bilatzeagatik. Amandari abisatu ondoren, gorpua aurkitu zuen emakumeari ere deitu zion, jadanik kasua itxi zuela esanez.

Maria Manterola



Rut Atxega

Zer egin?

Zure eta nire artean zegoena, izugarria zen.
Ezin nuen sinistu inoiz hori sentituko nuenik.
Baina orain zutaz ahaztu nahi dut,
nahiz eta zuk ez jakin zergatik.
Nik ez dizut esan zergatia, gure artekoa ez hausteko.
Nahiz eta orain ez egon batera,
hasieran sentitzen nuena sentitzen dut orain,
Eta min egiten dit zuk nigatik zer pentsatzen duzun jakiteak.
Badakit ez duzula inoiz ulertuko nolakoa naizen,
baina saiatu al zara ni ulertzen?
Zu bakarrik zaitut buruan denbora guztian
eta, gainera, esaten duzu ez didazula axola.
Une honetan ez dakit zer egin,
ikusten zaitudan bakoitzean, zurekin egon nahi dut,
baina, besteetan,
zugandik urrundu besterik ez dut nahi.

Olatz Dorronsoro

Bidaia galdua

Larunbata zen, eta lagunekin geratu nintzen hondartzara joateko. Hondartzara iritsi eta, bat-batean, olatu erraldoi bat ikusi genuen urrunean eta lagun guztiak, erotuta, korrika hasi ginen handik urruntzen bakoitza bera aldetik. Azkenean, denok elkartzea lortu genuen eta mendi batera igotzea erabaki genuen. 10 minutu ondoren, igotzea lortu genuen eta, jende artean, toki altu batera igo ginen. Handik ikusi genuen nola hartzen zuen olatuak inguru guztia. Mendian ehun pertsona inguru geunden ni eta nire lagunak artean. Denok gure familiak berriz ikusiko ote genituen galdetzen genion gure buruari eta itsasoa jaitsi zain geunden.

Astebete pasa zen eta itsasoa ez zen jaisten; denak gosez hiltzen ari ginen eta, halako batean, ontzi hegalaria arraro bat iritsi zen. Handik estralurtar talde bat jaitsi zen, eta esan zuten beren ontzi handi bat erori zela itsasora, olatu handi hura sortuz; esan zuten, baita ere, itsasoa jaisteko pare bat urte pasako zirela. Bitartean, beren planetara joan nahi genuen galdetu ziguten eta, dena normal geratzean, berriz ere lurrera ekarriko gin-

tuztela. Azkenean, guztiek berekin joatea erabaki genuen, mendi hartan geratuz gero gosez hilko ginelako.

Bidaia luzea izan zen ontzi bitxi hartan; baina jateko eman ziguten eta denok tripak bete eta lo ondo egin genuen. Hainbat galaxia igaro genituen. Esperientzia oso ederra izan zen. 4 egun eta gero, planeta gorri batera gerturatu ginen eta han lurreratu ginen. Harrera beroa izan genuen. Hango izaki asko zeuden gure zain; baina, konturatzera, kartzela moduko batean sartuta geunden. Hurrengo egunean beren erregearengana eramán gintuzten eta erregeak esan zuen lurra nahita suntsitu zutela gizakiarekin amaitzeko, eta beren planetako zoo batean sartuko gintuztela.

Zooan beste izaki ugari zeuden, baina bakoitza bere espeziekoekin zegoen. Hango jende ugari joaten zen zoora bisitan eta, hasieran, guztiak guri begira geratzen ziren. Tarteka, espezie berriak ekartzen zituzten eta horiek izaten ziren erakarpen handienak.

Bi urte pasa ziren. Azkenean, ohartu ginen beste izaki guztiak ere gu bezala zeudela, denak aurpegi tristearekin ikusten genituen-eta. Orduan, handik irteteko plan bat asmatu behar genuela ohartu ginen eta beste izaki guztiak ere salbatu behar genituela. Lehenik, gure alboan zeuden izakiekin harremanetan jartzen ahalegindu ginen: izaki oso indartsuak ziren eta handik erraz irten zitezkeen, baina oso inteligentzia maila baxua zuten eta ez zuten pentsatzen handik irteteko aukeretan. Azkenean, berekin komunikatzea lortu genuen eta, paretak puskatuz, handik irten gintezkeela esan genien. Hala ere, espezie horretako bi izaki bakarrik zeuden eta bi horiek harrapatu edo hilez gero, erraztasun handiz harrapatuko gintuzten, estralurtarrak gu baino handiagoak baitziren.

Hurrengo goizean ihes egiteko plana esplikatú genien eta arratsaldean martxan jarri genuen. Lehenengo beren eremuko kristala apurtu zuten; segituan hasi zen alarma moduko bat martxan eta jarraian dozenaka guardia etorri ziren. Denak ihes egindako izakiei pistola moduko batekin tiroka hasi ziren, baina ez zieten minik egiten. Orduan, guardia gehienak akabatu zituzten eta gure hesia apurtu zuten. Beren bizkarrera igo ginen denok eta beste izakiak salbatzera joan ginen. Eremu asko zeuden, baina segituan txikitzen zituzten denak.

Orduan, guardia gehiago etorri ziren; arma indartsuagoak zituzten eta bost robot handi zekartzaten. Beren bizkarretik jaitsi ginen eta roboten kontra joan ziren. Robot bat suntsitzea lortu zuten; baina, zoritxarrez, bi roboten artean bat harrapatu zuten. Hala ere, besteak ihes egitea lortu zuen. Bestea harrapatu zutenek, ezin gintuen denak bizkarrean eramán eta korrika joan behar izan genuen. Horrek abiadura asko moteldu zuen berak gu baino askoz azkarragoak baitziren. Orduan, zorionez, beste eremu batean, izaki handi eta azkar batzuk aurkitu genituen eta haiek asko lagundu ziguten.

Zooko irteera ikusi genuen eta kanpora abiatu ginen izaki guztiak. Orduan, misil batek geratzen zen izaki handia jo zuen eta gaian zeramatzan pertsona batzuk hil

ziren eta bera ere erdi hilik geratu zen. Baina besteok atzean utzi genituen eta kanpora irten ginen. Planeta hartakoek espazio-ontziak zituzten tokira joan ginen. Baina zaintzaile ugari zeuden leku hura zaintzen eta, beraz, lo egiteko leku bat aurkitzera joan ginen.

Hurrengo egunean aireportu moduko horretan sartzeko modu egokiena denak batera sartzen ahalegintzea izango zela pentsatu genuen. Orduan, makil moduko batzuk hartu genituen eta aireportura sartzen saiatu ginen. Zaintzaileek ezin zuten denen kontra ezer egin eta segituan akabatu genituen. Orduan, espezie bakoitza espazio-ontzi batean sartu ginen. Baina espazio-ontzia oso zaila zen gidatzeko, botoi eta palanka ugari zituelako. Palanka mugitzen eta botoiak sakatzen hasi ginen eta, azkenean, espazio-ontzia hegan hasi zen; baina, orduan, guardiak harrapatu zituzten bi izakiez gogoratu ginen eta salbatu egin behar genituela erabaki genuen, beren laguntzarik gabe ezinezkoa izango zelako ihes egitea.

Espazio-ontziarekin zoo aldera joan ginen eta sarreran lurreratu genuen. Ni eta lagun bat jaitsi ginen eta, ezkutuan, guardiei armak kendu genizkien eta, ondoren, espazio-ontzira joan ginen han armak banatzera.

Armak hartuta, hamar pertsona abiatu ginen. Bi izakiak zeuden tokira joan ginen, baina guardia askoz babestuta zegoen. Guardiei tiroka hasi ginen eta arma indartsuak zirela ohartu ginen: tiro bakar batekin akabatzen genituen guardiak. Guztiak akabatutakoan, bi izakiak espazio-ontzira eraman genituen; bat oso zaurituta zegoen eta ia ezin zuen ibili, baina espazio-ontzira iristea lortu genuen.

Espazio-ontzian egunak pasa genituen gure lagunak planeta aurkitzen. Planeta asko eta asko pasa genituen, guztiak oso arraroak; baina, azkenean, iritsi ginen beren planetara. Lurreratu ginenean, izaki mordoa zegoen guri atakatzeko prest; baina, jaitsi zirenean, denak lasaitu ziren.

Agur esan eta lurrera bueltako bidea hartu genuen. Ez zen oso luzea izan, nahiko gertu baixeuden lurretik. Iristean, ez zuen ematen olatu erraldoi batek garbitu zuenik, guztiz normal zegoen gauza. Bakoitza bere etxera joan zen eta han zeuden familia guztiak bizirik, eta ez zuen ematen bi urte kanpoan egon zirela, baizik-eta arratsalde bat. Orduan, esperientzia hori bizi izan zutenek ezer ez esatea erabaki zuten.

Mikel Amilibia



Itsaso Iriando

Zer gertatuko ote zen...?

Larunbata da. Lagunengana noa eta, bat-batean, mezu bat iritsi zait mugikorrera.

“Faltan botatzen zaitut. Geratu gaitezke elkar ikusteko? Luis”

Bi aldiz pentsatu gabe, erantzun botoia sakatu eta, zebra bidea pasatzen dudana bitartean, erantzuna idazten dut. Orduan, auto baten bozina entzuten dut eta, ezer egin baino lehen, autoak indar handiarekin jotzen nau, eta nire gorputza lurrera erortzen da.

Inpaktua oso handia eta azkarra izan da. Ia ez dut minik sentitu. Nire bihotza golpetik gelditu da, literalki. Hil egin naiz.

Momentu bat dago bizitzan, non bakoitzak pentsatu egiten duen zer gertatuko ote zen gauzak desberdin egin izan balitu. Galdetu egiten diogu gure buruari nola izango ote ziren gauzak ezkerrean joan beharrean eskuinera joanda, edo bai esan beharrean ezetz esanda. Orain, espiritu triste bat bakarrik naizelarik, galdetu egiten diot nire buruari nolakoa izango ote zen nire bizitza gauzak beste modu batera egin banitu.

Jakin egin nahiko nuen. Zer gertatuko ote zen gau hartan mozkortu ez baldin banintz? Zer gertatuko ote zen Charlie-ren kulpaz drogadikto bat bihurtu ez banintz? Zer gertatuko ote zen balak ez balio berari eman? Zer gertatuko ote zen ez bagina haserretu? Jakin egin nahiko nuke.

Nire bizitza inoiz ez zen izan ederra, ez zoragarria, ezta atsegina ere. Inori ez zion sekula eman inbidiarik nire bizimoduak. Baina, tira, esaten dudana ulertu ahal izateko, denboran atzera egin behar dugu; sei hilabete atzerago, zehazki. Gau hartan hasi baitzen nire amesgaizto guztia.

Nire larruzko jaka hartu, eta lokal hartatik irten nintzen. Nire hankak dardarka zebiltzan, eta nire oreka ez zegoen nire alde. Gehiegi edan nuen festa hartan.

Gaua iluna eta isila zen. Noizbehinka auto baten hotsa entzuten zen; baina, horrez gain, ezer gutxi. Nire burua biraka zebilen, edozein unetan lurrera zorabiatuta eroriko nintzen, edo botaka egingo nuen izkina batean.

Denda bateko erakusleihoaren kontra bizkarra jarri eta, zorabioa kontrolatu nahian, bertan gelditu nintzen mugitu gabe. Orduan hots batzuk hurbiltzen entzun nituen, edo nire imajinazioa zen?

Ohartu baino lehenago, nire aurrean hiru tipo zeuden. Horiek elementuak nire aurrean zeudenak! Bakero zahar eta zuloz beteak, niki zikinak, oinetako zaharrak lokarriak lotu gabe eta gehitzeko, denek zuten arropetan droga usaina.

—Galdu egin al zara, panpoxa? Laguntzarik behar? —galdetu zidan batek.

—Ez, lasai. Ez dut astapotro batzuen laguntzarik behar? —esan nuen, nire ahotsak dar-dar egin ez zezan deseatzuz.

—Barkatu? Laztana uste dut ez zenituzkeela horrelako gauzak esan beharko —esan zuen beste batek.

—Nik nahi dudana esaten dut —erantzun nuen, tinko.

—Mutilak, uste dut neskato honek eskarmentu bat behar duela —esan zuen batek niregana hurbilduz—. Ondo hitz egiten ikasi behar du.

Ohartu nintzenerako, beste bi tipoek besoetatik helduta ninduten eta hirugarren-goak ni jotzeko prest zuen ukabila.

—Aska ezazue —esan zuen norbaitek. Hiru tipoak biratu egin ziren azkar, baina ni askatu gabe.

—Baina, Charlie, neska honek... —hasi zen ukabilkada eman nahi zidan tipoak. Baina Charlie delako hark isilarazteko keinua egin zion.

—Baina ezer ez! Mesedez, ez ditu 16 urte ere izango eta jipoitu nahian zabiltzate? Baina zer erre duzue?

—Erre ezer ez, baina esnifatu zer edo zer bai —esan zuen tipo haietako batek irribarretsu, harro egongo balitz bezala.

—Mesedez, askatu ume hau eta joan zaitezte norabait oraindik gehiago drogatzera —esan zuen Charliek, nazkaturik.

Tipoek askatu egin ninduten eta marmarka joan ziren. Ni bertan gelditu nintzen nire *salbatzailearen* aurrean.

—Ez didazu eskerrik eman behar —esan zuen, ironikoki

—Ez nuen egitea pentsatzen —esan eta bafatu egin nuen

—Neskatxo, jipoi batetik salbatu zaitut! Eskerrak ematea da egin dezakezun gutxienekoa. Baina tira, nahi duzuna egingo duzu.

—Ez izan zalantzarik nahi dudana egingo dudala —esan nuen harro—. Eta ez naiz ume bat, 17 urte ditut.

—Bai? Ai, ama, barkatuko al didazu ume deitu izana? —esan zuen, kezkatu ahotsa jarritz.

—Agian! —besoak gurutzatu nituen—. Trukean zer lortuko nuke?

Gau hartan ezagutu nuen Charlie Cooper, hiriko *camello* handienetako bat.

Hura izan zen hasiera. Charliek zioenez, adorea nuen, eta hori gustatu egiten omen

zitzaion. Ni baino zortzi urte zaharragoa zen, eta horrek zerbait desberdina sentiarazten zidan. Begiratzen nuenean, heldutasuna eta segurtasuna transmititzen zidan, eta hori kilikagarria iruditzen zitzaidan. Berarekin denbora gehiago igarotzen hasi nintzen. Hasieran astean behin edo bitan elkartzen ginen; baina, denbora pasa ahala, geroz eta gehiago ikusten hasi ginen, egunero elkar ikusi arte.

Ordurako, Charlieri esker, ezagutzen nituen droga guztiak probatu nituen. Beti entzun nuen drogatzeari ez zela ona, kaltegarria zela osasunerako. Baina zergatik? Ondoezak, kezak... dena desagertu egiten da.

Hura gustatu egiten zitzaidan, drogek ongi sentiarazten ninduten. Noski, ez nindoan ezta bi hilabete ere horretan. Artean ez nekien ze kalte ekarriko zizkidan drogatzeari. Baina nik gehiago nahi nuen. Sentsazio hori nireganatu nahi nuen, eta Charliek ematen zizkidan drogak ez ziren nahikoa.

Nire kabuz ikertzen hasi nintzen. Zorionez, denbora hartan Charliek jende asko aurkeztu zidan. Beste komertziantek batzuk, beste *camelloak* beren substantzia propioak egiten zituen jendea... Beraz, haiekin komunikatu nintzen eta, hasiera batean, prezio onak egin zizkidaten. Zer diot, onak? Oso onak ziren. Nire diruarekin aski nuen, eta substantzia berri eta fuertekoak probatzeko aukera izan nuen.

Bigarren hilabetearen erdialdean hasi ziren umore aldaketak eta osasun arazoren bat edo beste. Jada ez nituen nota zoragarriak institutuan, ez nintzen ia inoiz nire lagunekin geratzen, egunero liskarra nuen gurasoekin, nire anaia txikiaren jada ez nuen harreman horren estua... Oraindik aldatu ez zen gauza bakarra Luisekin nuen harremana zen. Nire lagun mina zen bi urte geneuzkanetik, eta uste genuen betirako iraungo zuela harreman horrek, baina gauza guztiek dute hasiera eta amaiera bat.

Ez naiz oso ondo gogoratzen gure arteko harremana aldatzen hasi zen egun hartaz: drogaturik nengoen, eta orain gogoratzen saiatzen naizenean, ez dakit ziur, ze oroitzapen diren errealak, eta zein diren drogaren haluzinazioak. Baina gauza batzuek oroitzen naiz.

Otsailaren 19a zen, larunbata. Nire gurasoek kanpoan pasako zuten asteburua eta anaiak lagun baten etxean egingo zuen lo. Ostiral arratsaldean, institututik ateratzean, Luisi galdetu nion ea nire etxean pasa nahi zuen asteburua, eta baiezkoa eman zidan.

Larunbat eguerdian, eguerdiko ordu biak izango ziren gutxi gorabehera. Nire logelari nengoen ohean etzanda. Luis duela ordu erdi ailegatu behar zen etxera. Aspertuta nengoen itxoiteaz. Orduan gogoratu nuen. Oraindik nire poltsan nuen Emanuel nire *camello* berriak eman zidan substantzia berria: PCPa.

Poltsatik plastikozko poltsatxo bat hartu eta hauts zuria begiratu nion, hark eragingo zizkidan efektuak gogoratu nahian.




Nahia Agudo

Flashback

- Ekarri duzu merkantzia? —galdetu nuen, nire jaka erantziz.
- Dirua ekarri duzu? —galdetu zidan.
- Merkantzia beti aurretik.
- Dirua beti doa aurretik.
- Ez nirekin! Merkantzia ikusi arte ez duzu billeterik ikusiko.
- Argia zara, neska —irribarre egin zidan—. Hartu! — eta plastikozko poltsatxo bat eman zidan.
- Zer da? —galdetu nuen hauts zuriari begiratzuz.
- PCPa ezagutzen duzu?
- Ez, ez nuen inoiz entzun.
- Arraroa, nahiko ezaguna da.
- Ba, nik ez dut ezagutzen. Zein dira efektuak?
- Euforia, lasaitasun sentrazioa, haluzinazioak, ongitasuna eta besteren batzuk.
- Eta zein dira efektu kaltegarriak?
- Dosi txikiak hartuz, ez dira asko. Efektu nabariena beroarena da; bero asko sentitzen da bat-batean, eta begiek kontrola galdu dezakete, mugitzen hasi daitezke gelditu gabe.
- Ezer gehiago ez?
- Oso gutxi batzuk paniko atakeak izan dituzte, baina ez da kasu oso ohiko bat. Eta orain erantzun: nahi duzu ala ez?
- Zergatik ez? Hemen duzu —billete sorta bat eman nion, eta kontatzen hasi zen.
- Hemen laurogei daude; ehun eta hogeik eskatu nizekizun —esan zuen kopetilun.
- Badakit, eman aste bat... dirua izango dut.
- Hobe duzu horrela izatea —mehatxatu ninduen.

Sukaldera jaitsi, eta ur baso bat hartu nuen. Ondoren, logelara itzuli eta gau-mahiaren gainean utzi nuen. Jarraian, PCP substantziatik gutxi gorabehera 5 mg hartu eta edalontzian isuri nituen. Azkar diluitu zen substantzia guztia. Edalontzia hartu eta



Paula Argintxona

erdia edan nuen. Geratzen zena edalontzian utzi, eta mahai gainean utzi nuen, PCParen poltsatxoaren ondoan.

Ez dakit zenbat denbora igaro zen Luis nire gelan sartu zen arte.

—Kaixo, barkatu berandu etorri izana —esan zuen, bere jaka aulki baten gainean utziz.

—Kaixo, Luis —esan nuen nire eskuei begiratzuz— Nola sartu zara etxean? Adarbakar batekin leihotik sartu zara?

—Adarbakarra? —esan zuen barrezka—. Ordezko giltza non gordetzen duzuen esan zenidan, gogoratzen?

Nire ondoan eseri zen, ohean.

—Adarbakarrak gustatzen zaizkit —esan nuen sabaira begiratzuz—. Politak dira, arrosak eta kotoia bezain leunak. Adarbakar bat izan nahi dut, hegan egiteko eta ostadarretatik ibiltzeko.

—Baina, neska, zer gertatzen zaizu? Ongi zaude? —esan zuen, arraro begiratzuz.

—Inoiz baino hobeto —ohean zutik jarri eta jauzika hasi nintzen—. Egin jauzi nirekin.

—Baina zer gertatzen zaizu?

—Energia pila bat dut; ezin naiz gelditu —esan nuen jauzi egiteari utzi gabe.

—Ea, gelditu zaitez —besotik heldu ninduen eta belauniko gelditu nintzen bere aurrean— Zer duzu begian?

—Zer dut? —esan nion, begiak ia kliskatu gabe.

—Ezkerreko begia zoratu egin zaizula dirudi. Biraka ari zaizu Harry Potterreko pertsonaia horri bezala.

—Bai? Hori zortea! Agian, sorgina izanda, nire adarbakar propioa izango dut.

—Edanda zaude?

—Ez —derrepentean, izugarrizko beroa sentitzen hasi nintzen—. Beroa egiten du.

—Beroa? Hamabi gradu bakarrik daude eta berogailuak piztu gabe daukazu.

—Ba, nik beroa dut —oihukatu nion.— Kiskaltzen ari naiz!

Alkandora kendu nuen, bularretakoarekin eta azpiko niki batekin geratzuz.

—Ondo zaude? Kezkatzen ari naiz —esan zuen nire kopetan eskua jarritz—. Ene, erretzen zaude!



Leire Bravo

—Badakit! Zerbait edan behar dut!

Luis, azkar batean, ohetik zutitu eta gela guztia arakatzen hasi zen. Mahaiaren gainean edalontzia ikusi eta, astirik galdu gabe, hartu egin zuen. Baina, orduan, mahaiaren gainean zegoen zerbaiti begiratzeko gelditu zen. Edalontzia eman zidan eta dena kolpetik edan nuen, horrek lasaituko ninduelakoan. Bitartean, Luis mahaira hurbildu zen berriz eta eskuartean zerbait zuen.

—Zer da hau? —galdetu zuen, plastikozko poltsa erakutsiz.

—Em... Ez dakit —ezjakin plantak egin nituen.

—Ez dakizula? PCP jartzen du! —garrasi egin zidan.

—Luis, lasaitu zaitez —esan nuen, beldurturik. Luisek inoiz ez zidan horrela garrasi egin.

—Ezin dut sinetsi zikinkeria hau sartzen duzunik gorputzean —lurrera bota zuen poltsatxoa—. Baina zertan ari zinen pentsatzen hau hartzean?

—Ez egin garrasi, mesedez —negarrez hasi nintzen, zergatik jakin gabe.

—Ederto, eta, gainera, negarrez. PCParen efektu bat dela pentsatuko dut, zeren bestela tuntuna zarela esango nizun, zikinkeria hau hartu eta ondoren negar egiteagatik —esan eta nire aurrean belaunikatu zen aurpegia bere eskuekin tapatuz.

Egun hartan Luisek drogekin nituen arazoen berri izan zuen. Inoiz gehiago drogatu ez nintzela agintzera behartu ninduen, eta nik nire hitza eman nion, baina ahula nintzen. Denboraldi bat pasa zen, aste batzuk egon nintzen drogarik hartu gabe, baina nire indarren aurka zihoan, ezin nuen hura utzi. Beraz, Luisi nire hitza eman ondoren, berriro erori nintzen drogen mundu ilun eta arriskutsu hartan.

Jada hiru hilabete igaro ziren, eta gauzak berriro “normaltasunera” itzuli ziren. Berriro drogak hartzen nituen, baina gauza bat desberdina zen: prezioak igo egin ziren. Nire administratzailearekin tratatu bat egiten saiatu nintzen, baina alferrik izan zen. Geroz eta diru gehiago eskatzen zidan, eta geroz eta zor gehiago nituen.

Arratsalde batean, nire administratzailearekin gelditu nintzen Dark Side kafetegian. Esan genezake droga administratzaileen elkargunea zela, eta hiriko jendeak bazekien, baina inork ez zuen ezer esaten, arazoetan ez sartzeko. Jendeak ez zuen ezer esaten, eta drogazaleek ez zuten ezer txarrik egiten. Beraz, hantxe nengoen ni, mahai batean nire administratzailearekin hizketan.

—Ez zait gustatzen gauzak gehiegi korapilatzea eta, beraz, zuzenean esango dut: 480 dolar zor dizkidazu —esan zuen, begirada gainetik kendu gabe.

—Badakit —esan nuen, begietara begiratu ezinik.

—Laztana, denbora eman dizut, baina jada pazientzia agortzen ari zait. Ordaindu egin behar didazu.

—Egingo dut, denbora bakarrik behar dut .

—Jada hiru aste eman dizkizut! —garrasi egin zidan—. Ongi da, gauza bat egingo dugu, bi aste emango dizkizut, baina ordurako dirua ez baduzu... —esaldia airean utzi zuen.

—Orduan, zer? Ez ditut suposizioak atera nahi; nahiago dut jakin zer gertatuko zaidan.

—Laztana, bi astetan dirua ez baldin baduzu, nire laguntxo honek min handia eragingo dizun zerbait sartuko du zure gorputz eder horretan —bere jakaren poltsikoan zuen pistola erakutsi zidan—. Ulertu duzu?

—Bai —esan nuen, burumakur.

Kafetegitik atera nintzen. Euria ari zuen; baina, hala ere, euria ez zen izan oztopo bat, nire aurrean zegoen eta mespretxuz begiratzen zidan mutil harren aurpegia ondo ikusteko: Luis zen.

—Hitza eman zenidan —esan zuen ahots tinkoarekin.

—Luis, nik... —hitzak nire ahotik ezin zirela atera sentitzen nuen, eztarrian korapilo bat izango banu bezala.

—Zuk, zer? Kafetegi hau kafetxo bat hartzeko leku aproposa zela pentsatu duzu? Mesedez, zu bezainbeste denbora daramat bizitzen hiri honetan; badakit ze lokal klase den hau.

—Luis nik azal... —hitz egiten hasi nintzen, baina Luisek isiltzeko keinua egin zidan.

—Azaldu egin nahi duzu zergatik zeuden hemen? Egia, eskubidea duzu. Agian, yonki bat izateari utzi nahi diozu eta zure *camelloarengana* etorri zara gauzak argi uztera. Hori esan behar zenidan?

Isilik gelditu nintzen.

—Erakutsi poltsa! —esan zuen, nigana hurbilduz.

—Zertarako?

—Emadazu! —indarrez poltsa eskuen artetik kendu zidan eta arakatzen hasi zen.

—Ea zer dugun hemen: kokaina, PCP, marihuana... Aiba! Speed! Hau ikastean erneago egoteko da, ezta? —esan zuen, zinikoki—. Baina zer gertatzen zaizu? Zergatik hartzen dituzu gauza hauek? Kalte bakarrik egingo dizute.

—Mesedez, zein zara, nire ama? Nik ikusiko dut zer egin nire bizitzarekin.

—Ez zara konturatzen zutaz kezkatzen naizela? —esan zuen ahots tonu apalean.

—Ba, egin mesede bat eta ez kezkatu horrenbeste —esan nuen, nazkaturik—. Ez, hobeto, egin mesede bat eta ez hitz egin niri inoiz gehiago —poltsa kendu nion.

—Hori da nahi duzuna? —galdetu zuen harriturik.

—Bai, azken hilabete honetan ezin izan zaitut jasan, nazkaturik naukazu.

—Zure on beharrez aritu naiz.

—Eta ni ere zure on beharrez ari naiz oraintxe. Urrundu nigandik; ez hitz egin gehiago nirekin. Yonki bat bakarrik naiz, ezta? Hobe izango da lagun izateari uztea, arazoak bakarrik ekarriko dizkizut.

Arratsalde hartan bukatu zen Luis eta bion arteko harremana. Inoiz gehiago ez nuen ikusi. Drogek nire lagun minena nigandik urrundu zuten.

Eta jada laugarren hilabetera iritsi ginen. Nire zorra ordaintzeko unea iritsi zen, baina ez nuen dirua lortu. Beraz, jada ideia nire buruan sartzen hasia nintzen. Hil egingo nintzen; hobeto esanda, hil egingo ninduten. Seguruenik, sikario bat kontratatuko zuen Emanuelek.

Apirilaren 3a zen. Nire gurasoak ama izan berri zen lehengusina batekin zeuden, eta ni etxean nengoen James nire anai txikiarekin afaltzen. Orduan norbaitek atea jo zuen. Oilo ipurdia jarri zitzaidan. Bera izango zen? Sikarioa? Dardarka atera hurbildu eta ez oso seguru atea ireki nuen.

—Zerbait nahi duzu? —galdetu nion.

—Neskatxo, inoiz ez zaio atea ezezagunei ireki behar —bultzatu egin ninduen eta etxean sartu zen, atea itxiz—. Emanuelek bidali nau; bere dirua nahi du.

—Em... bai, badakit, baina... —izuturik nengoen eta hitzak lepoan kateaturik nituen.

—Baina zer? Ez duzu dirurik? —galdetu zuen, bere jakaren barrualdeko poltsikoan eskua sartuz—. Neska ederra zara, pena bat da hau egin behar izana —pistola bat atera zuen eta nire burura apuntatu zuen.

—Urrundu nire arrebarengandik! —garrasi egin zuen norbaitek nire atzean. Biratu eta bertan ikusi nuen hamabi urteko nire anaia txikia.

—James, joan hemendik! —garrasi egin nion.

—Ez! Utzi nire arreba —bultzada bat eman eta nire aurrean jarri zen.

—O, oso hunkigarria! Berriro ere: pena da, biak hil behar zaituztet.

—Hori ez! —garrasi egin eta bere gainera jauzi egin nuen, borrokan hasiz.

Nire anaia ere nirekin hasi zen borrokan. Ukalondokoak, ostikoak... zortez, pistola lurrera erori zen. Orduan nire anaia alkandoraren lepotik heldu eta lurrera jaurti zuen. Une hartan, distraitu egin nintzen eta sikarioak denbora izan zuen pistola lurretik hartzeko.

Orduan, tiro bat entzun zen. Nire gorputza aztertu nuen; baina ez nuen bala arrastorik. Beldurrez jiratu eta nire anaiari begiratu nion. Eta hantxe zegoen bera, eskua pankrearen zonaldean jarrita, eta odol jario. Hiru segundoren baitan aurpegia guztiz zurbildu zitzaion eta lurrera konorte gabe jauzi zen. Gorrotoa sentitzen nuen barruan. Sikariorantz biratu nintzen jotzeko prest, baina mugimendu bat egin baino lehen, tiro bat eman zidan.

Esnatu nintzenean, ospitale batean nengoen. Ama nire ohearen ondoan zegoen eserita, negar eta negar, eta aita paretari begira zegoen beste mundu batean balego bezala. Zorte handia izan nuen. Esan zidatenaren arabera, bala nire klabikularen zonaldean sartu zen eta ateratzea lortu izan zuten. Nire anaiak, ordean, ez zuen ezta zorte pixka bat ere izan. Balak pankrea lehertu zion, eta medikuek ezin izan zuten ezer egin.

Ordutik hilabete eta erdi pasa da. Izugarrizko sufrimendua izan da niretzat denbora guzti hau. Uste dut ez dudala esan behar inoiz gehiago ez nuela droga bat bera ere hartu. Emanuelen berri inoiz ez nuen izan, eta, egia esan, nahikoa lasaitzen ninduen.

Eta orain, nire erruz jasan dudana sufrimendu guzti hau eta gero, hilda nago. Egia esan, merezia dut. Nire anaia hil egin zen nire erruagatik, ama depresio handi batean sartu zen, aita samindu bat bihurtu zen, eta Luis... tira, inoiz ez dut jakingo zer gertatu zitzaion Luisi lagun izateari utzi genionetik.

Orain hilda nago, eta denbora asko izango dut erreflexionatzeko. Ideia bat egin nahi dut, hartu nituen erabakiak hartu ez banitu, nire bizitzarekin zer gertatuko ote zen jakiteko.

Zer gertatuko ote zen gau hartan mozkortu ez baldin banintz? Tira, galdera nahiko erreza, ez nintzen tipo haiekin elkartuko, eta inoiz ez nuen Charlie ezagutuko.

Zer gertatuko ote zen Charlieri esker drogadikto bat bihurtu ez banintz? Suposatzen dut, inoiz ez nuela izango beste droga batzuk probatzeko beharrik; beraz, ez nuen Emanuel ezagutuko, ez nituen zorrak izango, eta ez zuen sikariorik bidaliko ni hiltzera.

Zer gertatuko ote zen balak ez balio anaiari eman? Ez nago oso ziur hau saihesterik zegoen. Hasiera batean tiro bat jaso ez baldin balu, hau da, sikario horrek pistolarekin apuntatzean ez baldin bazen tartean jarri, tiroa zuzenean niri joango zen zuzendua. Baina tiroa entzutean, gertatu zena ikustera joango zen, eta berdin-berdin hil egingo zen.

Zer gertatuko ote zen Luis eta biok ez bagina haserretu? Hau da, suposizioekin

nahikoa ez dudan galdera bakarra. Zer gertatuko ote zen? Agian lagunak izaten jarraituko genuen, agian ezkondu egingo ginen, agian bietako bat atzerrira joango zen lan egitera... Horrenbeste aukera daude. Baina, gutxienez, lagunak izaten jarraituko genuen.

Eta orain galdera garrantzitsuena. Hau dena saihestu izan banu, orain bizirik egongo nintzen? Egia esan, uste dut drogen kontu hau, Emanuelena, Luisena, sikarioarena... ez daukate zerikusirik ni hil nintzen moduarekin. Zeren, drogadikto bat izan edo ez, edozein modutara, mezuak idazten joango nintzen ibiltzen ari nintzela. Beraz, seguru-enik, hilda egongo nintzen; agian, beranduago edo lehenago, baina hilda.

Baina, gutxienez, bakean hilko nintzen. Nire arimarekin bakean. Jakinda bizitza zoragarri bat izan nuela, eta ezer ez nuela aldatuko.

Baina, zoritxarrez, orain hori ezinezkoa da. Hilda nago, eta ezin dut atzera egin eta nire erabakiak aldatu, zer gertatuko ote zen jakin ahal izateko.


Ione Zinkunegi

Aaron Assael

1939ko uda zen Alemanian, eta bero handia egiten zuen. Ni, Aaron Assael, judutarra nintzen. Nahiz eta etnia honetakoa izan, han bizi nintzen nire familiarekin, Munichen. Garai haiek ez ziren inorentzat errazak, krisialdi handiaren erruz. Hala ere, egoera txarrean ere, Alemania beste Europako herrialdeak baino azkarrago ari zen krisi hartatik ateratzen.

Dena den, esan behar da egoera ekonomiko txarra ez zela, inolaz ere, arazorik handiena gure herrian. Lehenengo Mundu Gerrako Alemaniaren porrotaren ostean, gizartea erabat aldatua zegoen. Beren ustez, Alemania zeharo gutxietsia geratu zen eta mendekuaren zain zebiltzan. Horren erantzuna Hitler presidentetzat hautatua izatea izan zen. Alemaniak joera faxista hartua zeukan. Gu, noski, judutarrok, beldurrak jota geunden. Ordurako, judutarrok ez ginen ongietorriak Alemanian. Begirunerik gabe begiratzen gintuzten. Horregatik, judutar askok hanka egin zuten egoera hura ikusita; judutar guztiok ez geneukan zorte berbera, ordea. Egia esan, azkenaldian askotan pentsatu nuen Alemania uztea, baina nora joan?

Hilabete batzuk igaro ziren eta egoera okerrerantz suertatu zitzaigun. Iraila ez zen inolaz ere ondo hasi, Alemaniak Polonia eraso baitzuen. Ni laster jabetu nintzen irteerarik gabeko egoera zela hura; maletak egin eta mendebalderantz joan beharko genukeela proposatu nion nire familiari eta, zalantza eta gorabehera batzuen ondoren,



baietz esan zuten. Zoritxarrez, pausua ematen hasi ginenerako, beranduegi zen, ordu-rako judutarrak atxilotzeko agindua eman zuen Hitler izeneko militar maltzur hark.

Korrika eta presaka, trasteak bildu eta tren geltokirantz abiatu ginen. Hasieran, oharkabean pasako ginela pentsatu bagenuen ere, polizia batek ikusi egin gintuen eta, oihuka eta bultzaka, kamioi batean sarturik, bidaia azkar baten ondoren, polizia-etxe bitxi batera eraman gintuzten. Han neskak eta mutilak sakabanatu egiten zituzten, harribitxi eta baliozko gauzak kendu eta nonbaiterako abian jartzen zituzten. Gu kamioi batean sartu eta hantxe eduki gintuzten, kamioia bete eta martxan jarri zuten arte.


Kamioiaren hots traketsa atzera eta aurrera sumatzen genuen, baina ez genuen arras-torik norantz abiatu ginen. Orduak eta orduak igaro ziren eta ez genuen bukaerarik ikusten. Goseak eta egarriak geunden. Gure beharrak egiteko tokirik ezean, egoera gero eta txarragoa bihurtzen ari zen. 10 bat ordu igaro ostean, kontzentrazio-esparru batean geundela konturatuta, otoitz egin nuen. Era honetako eremuez zerbait irakurrita neukan. Nork pentsatuko zuen neure burua horrelako batean aurkituko nukeenik. Gorantz begiratuta, berriz ere otoi egin nuen.

Militarrak zeuden agintean kontzentrazio-esparru hartan. Lehenengo, gure jantzi guztiak kendu eta uniforme moduko bat jantzarazi ziguten. Nahiz eta oso zikina eta zatarra izan, ez zirudien deserosoa. Geroago, ilea moztu, jateko ogi koxkor bat eman eta gure logeletara eraman gintuzten.

Egoeraz jabetuta, irtenbiderik ez nuen ikusten; galduta sentitzen nintzen; baina, batez ere, nire familiagatik oso kezkatuta nengoen. Ziurrenik, umeak eta nire emaztea bortxatuko zituzten. Sinesgaitza zen jendea, gizakiak, horrela tratatzea. Denak ez al gara Jaungoikoaren seme-alaba? Neure buruari zera esaten nion: egoera horrek ez zuela esan nahi, inolaz ere, aleman guztiak horrelakoak izango zirenik. Nik hainbat aleman jator banituen lagun. Non ote zeuden? Zertan ari ziren? Ba ote zekiten ze gertatzen ari zen beren bizitza arruntetik hain hurbil?

Hurrengo egunean, goizeko seietan esnatu eta lanera eraman gintuzten. Ni ikatza erretzen zuen labe moduko batean jarri ninduten. Egia esan, ez nekien zertarako izango zen hango batek esan arte. *Ez zaitut ikaratu nahi, baina labe hauetan kontzentrazio-esparru honetako jendea erretzen da. Egun hautako batean baliteke nik edo zuk hor bukatzea.* Aho bete hortz geratu nintzen haren hitzak entzunda. Nire bihotzak ez sinisterra eramaten ninduen, baina barruak egia zela esaten zidan. Egun hartan 15 ordu igaro genituen lanean, ia ezer jan gabe. Benetan egoera jasangaitza eta oso tristea zen. Nahiz eta lagun gutxi batzuk izan, leku horrek infernua zirudien.

Egunak aurrera zihoazen bezala, pixkanaka-pixkanaka ohitzen joan nintzen; baina oraindik nire familia zela-eta oso kezkatuta nengoen. Zergatik? Zergatik hau judutarrrei? Egia esan, ez nuen uste naziak hain maltzurak izango zirenik. Gainera, sasoiko zeuden naziak; Polonia, Frantzia, Belgika... menpean hartuak zeuzkaten, mundua jango zutela zirudien. Urte batzuen ondoren, Estatu Batuak gerran sartu ziren aliat-



Ione Zinkunegi

uekin bat eginda. Gertaera horrek mundu osoan itxaropena ekarri zuen. Ordurako milioika gerlari gazte hilik zeuden, eta oraindik hilko zirenak!

Urte batzuen barruan aliatuek (estatubatuarrak, Frantzia, Ingalaterra, errusiarrak) frantziarrak nazien agintetik askatu zituzten eta Estatu Batuak Japoniarren aurka jardun zuten buru-belarri. Azkenean, bonba nuklearra bota eta bigarren mundu gerra amaitutzat eman zen. Ni, ez oso egoera onean; baina, zorionez, oraindik bizirik nengoen aliatuak kontzentrazio-esparrura iritsi zirenean.

Askatasuna lortuta, pare bat urteren buruan, ez nuen izan nire familiaren berririk eta buru-belarri ekin nion nire umeak eta emaztea bilatzeari. Munduko txoko guztiak arakatu eta, azkenean, emaztea aurkitu nuen, Estatu Batuetara dei bat egin ostean. Lehen itxuran, pozez zorutzen aurkitu nuen emaztea telefonozko deian; baina haren ahotsean zerbait berezia igarri nuen. Bihotza ia gelditu egin zitzaidan zer ote zitekeen pentsatu ostean. Alabengandik galdetu nionean ez zidan erantzun. Alabak ote ziren? Hara iristean dena kontatuko zidala esan zidan. Estatu Batuetarantz abiatu nintzen ahalik eta azkarren, nire familia maitearen bila.

Kaliforniako estatuan elkartu ginen. Oso aldatuta ikusi nuen. Urteak ez ziren alferrik pasa inorentzat; baina aurpegia nire emaztearena zen. Luzaroan hitz egin ondoren, negar artean esan zidan alabak bortxatzeko esklabotzat erabili zituztela kontzentrazio-eremuan. Bera ozta-ozta salbatu zela, ihes egin zuelako; baina, ahalegin guztiak eginda ere, ezin izan zituela alabak atera.

Inoiz kenduko ez zaigun pena daramagu barruan. Nola-hala, bizitzari aurre egin beharko diogu eta, horretarako, gutxienez, elkarren laguntza izango dugu.

Eneko Elizondo

Roter kasua

Kaixo! Ni Iñigo Etxeberria naiz. Zaragozan bizi naiz eta 1971. urtean jaio nintzen. Orain 40 urte ditut. Seme bat dut eta bi alaba. Alaba batek Paula izena du. Hiruetatik gazteena da, eta 10 urte ditu. Beste alaba, berriz, zaharrena da: Maria izena du eta 14 urte ditu. Semeak Aitor izena du eta 12 urte ditu. Zazpi urte daramat ezkondata. Nire andreak Sofia izena du eta frantsesa da.

Nik, txikitan, detektibea izan nahi nuen. Beti nenbilen hipotesiak ateratzen, luparekin nire pertsonaia gustukoena imitatzen: Sherlock Holmes. Batxilerra bukatu nuenean, karrera bat egin eta nire enpresa propioa ireki nuen. Ongi funtzionatu izan du orain arte, baina arazoak agertu dira, Roter familiak bere alabaren desagertpena



Jaione Illarramendi

aztertzeke eskatu digunean. Mehatxuak iritsi zaizkigu gure enpresara.

Mafia batenak dira mehatxuak, Estcheboni izenekoarenak. Mehatxuak iritsi eta hurrengo egunean goizeko seietan esnatu nintzen. Beti bezala jantzi nintzen: nire praka beltzak, alkandora zuria eta gorbata beltzarekin. Gosaltzeko kafea edan nuen eta, kafea bukatutakoan, enpresarantz abiatu nintzen. Zazpitan sartu nintzen lanera. Egun oso korapilatsua izan genuen. Roter kasua begiratzen ari nintzen bitartean, mugikorrean dei galdu bat iritsi zitzaidan. Zenbaki ezezaguna zen, eta apurtxo bat itxaron nuen. Berriz deitu zidaten mugikorrera: Estcheboni mafia zen. Baina, orduko hartan, mehatxuak egiak bihurtuak ziren: nire familia bahitu zuten. Esan zidaten Roter kasua uzten banuen eta ehun mila euro ematen banizkien, nire familia bakean utziko zutela.

Nik poliziari abisatu nion berehala eta lanetik irten nintzen. Eguerdiko ordu biak ziren. Euria ari zuen eta poliziaren kuartelerantz abiatu nintzen, autoa hartuta. Poliziak zein mafia zen galdetu zidan eta esan nion Estcheboni mafia zela. Poliziak esan zidan oso indartsuak eta zitalak zirela Estcheboni mafiakoak.

Poliziak esan zidan bazekitela zer egin. Kasua uzteko eta ehun mila euro ordaintzeko. Diruaren tartean txip txiki bat jarriko zutela eta ordenagailuarekin jakingo zutela non aurkituko zen mafiaren taldea. Poliziak oso arriskutsua izango zela esan zidan, baina niri berdin zitzaidan arriskutsua izan ala ez. Nik nahi nuena zen nire familia berriz etxean egotea eta behar zen guztia egiteko prest nengoen. Polizietako batek esan zidan, mafiakoek txipa bilatzen bazuten, posible zela umeren bat hiltzea. Nik esan nion ez zutela bilatuko, plan bat neukalako. Oso zaila izan zen txip ura motxilan sartzea. Txipa josi egin genuen zorroaren azpian. Oso zaila izan behar zuen horrelako txip txikitxo horren motxila handian bilatzea. Poliziarekin nengoela, mafiakoek deitu zidaten eta esan zidaten ea prest nengoen Roter kasua utzi eta ehun mila euroak ordaintzeko. Nik baiezkoa eman nien.

Tokia eta ordua aukeratu genuen. Gaueko hamarretan geratu ginen Zaragozako Plazan. Gaueko bederatzieta kotxea hartu nuen. Nire bihotza oso azkar zihoan, nerbioengatik. Joan nintzen hara eta kotxea garajea utzi nuen. Hamarrak iritsi ziren, hamar eta erdiak ere bai. Ez zetorren inor. Mugikorrera deitu zidaten. Berak ziren. Esan zidaten ez zirela joango, ez zirelako fidatzen. Nik ez nekien zer egin. Esan nion ea zer egin behar nuen. Esan zidan igandean berriz ere ordu berean eta plaza berean egoteko diruarekin. Nik baiezkoa eman ondoren, deia moztu zuten. Lur jota nengoen, nire bizi-tzan gehien maite nituen lau pertsonak mafia baten eskuetan zirelako etxerantz abiatu nintzenean.

Baina etxean argia zegoen. Poliziari deitu nion eta esan nien argia zegoela etxean eta itzalak ikusten zirela leihotik. Berek esan zidaten segituan etorriko zirela. Bat-batean argia itzali zen eta beste argi bat agertu zen. Argi hura salatik zetorren. Ikaratuta nengoen. Bat-batean, bihurgunetik azaltzen, poliziaren kotxea ikusi nuen. Esan zidaten behean geratzeko eta hori egin nuen, polizia buruarekin geratu nintzen. Berak lasai egoteko esaten zidan, baina nik ezin nuen lasai egon. Nire familia bahitu zuten eta nire

etxea miatzen ari zen norbait. Hori ez zen lasai egoteko gauza. Poliziak etxera ailegatu zirenean, pertsona batzuen hanka hotsak entzuten ziren. Sartu zirenean, lau gizon zeuden. Poliziek harrapatu eta kuartelera eraman zituzten. Han hitz egin zuten eta informazioa atera zieten. Nire familia non zeukaten ateratzen saiatu ziren, baina ezin izan zuten. Hotel batera joateko esan zidaten, etxean ez nengoelako seguru. Hurrengo egunean hotelean gosaldu nuen; gauza arraroa iruditu zitzaidan, baina egin beharra zegoen. Nire etxea salgai jarri nuen. Igandea iritsi zen. Gaueko hamarretarako plazara joan nintzen; baina, orduko hartan, poliziek lagunduta. Mikrofono bat itsatsi zidaten bizkarrean. Etortzen zirenean zer esaten zuten entzuteko eta, nik seinalean egindakoa, mafiakoak harrapatzera etortzeko.

Hamarrak eta laurden ziren. Kotxe beltz bat inguratu zen niregana eta handik gizon bat atera zen, beltzez jantzita. Ni izutu egin nintzen, baina pentsatu nuen: *Hau nire familiagatik egiten dut*. Beldur gabe altxatu eta mafiosoari esan nion: *Hartu zure dirua eta eman nire familia*. Hori esatearekin batera, adostutako seinalea egin nuen eta poliziak agertu ziren kaleko jantziekin eta, txipdun motxila mafiosoari ematen ari nintzaion bitartean, atzetik heldu zuten eta kotxeko gorpilei lau tiro jo zizkieten. Kotxe barrukoak atera egin zituzten eta esan zieten esateko non zeuden nire familiakoak. Mafiosoek ez zuten erantzun eta, orduan, poliziek esan zieten torturatu egingo zituztela. Hori adituta, haietako batek esan zuen mendiko etxean zeudela bahituta. Polizia batzuk kuartelera joan ziren eta ni eta beste batzuk mendiko etxerantz abiatu ginen. Ailegatu ginen eta argia zegoen. Poliziaren brigada etorri zen eta, armaturik, etxera sartu ziren. Ordu erdi egon ziren etxean. Ni polizietako batzuekin beheran geratu nintzen, ez zidatelako gora igotzen utzi. Jaitsi zirenean, nire emaztea eta hiru umeak korrika etorri zitzaizkidan.

Polizietako batek esan zidan beste neskaxa bat zegoela etxean bahituta. Galdetu nion ea Roter familiakoa zen, eta berak baietz esan zidan. Nik mugikor bat eskatu eta Roter familiari deitu nion. Esan nion Zaragozako zein lekutan nengoen eta beren alabarekin nengoela. Mugikorreko pertsona negarrez hasi zen. Hamar minutu baino gutxiagoan ailegatu ziren familiako denak. Poz-pezik kotxetik irten eta alaba besarkatu zuten. Niri eskerrak eman zizkidaten.

Gau hartan hotelean egin genuen lo eta hurrengo egunean etxearen galdera eginez deitu zidaten eta etxea saldu genuen. Zaragozatik gertu beste etxe bat erosi genuen eta hor bizi gara. Ez zaigu ezer txarrik gertatu eta, gainera, gure kasuagatik Estcheboni mafia osoa harrapatu dute.

Handik egun batzuetara detektibeen fundazio batek Wishtyk saria eman zidan eta diru horrekin familia aurrera ateratzea lortu genuen.

Jon Manterola